

ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko uztailaren 7a > Astelehenetik VI. urtean > 197. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Saiatzen gara metodologia ahalik eta parte hartzailena eta zabalena izaten"

Unai Txurruka
Eskola ibiltaria > 09



ARRASATE
Zerrajerako babestutako etxeak
inauguratuko dituzte gaur > 05

DEBAGOIENA
Esklerosi anizkoitzaren aldeko
jardunaldia atzo Arrasaten > 09

ATLETISMOA
Gipuzkoako atleta onenak
eguztenean Mojategin > 21

KIROLA
Aitor Eraña korrikalari beteranoari
elkarritzeta > 22

OSASUNA > DEBAGOIENA

Osakidetzak sendagile kopurua handituko du Debagoienean

DEBAGOIENA Ibarrean lau osasun unitate daude; 36 sendagile dira Bergaran, Leintzen, Oñatin eta Arrasaten

ONURAK Berrien etorrerarekin, pazienteendako kontsulta denbora handiagoa izatea da helburua

BERRIAK Ekainean barrena hasi dira lanean anbulatorioetan plaza lortu duten sendagileak > 03

INGURUMENA > DEBAGOIENA

Konpostaje planta Arrasaten

Diputazioak konpostaje-planta egiteko konpromisoa hartu du > 04

G2a

Ibarrean jaiak izan dira nagusi oraingo aste bukaeran

Eguzkiaren faltan, han eta hemengo jaiak ditugu udako protagonista nagusiak. Aste bukaeran jaiak ospatu dituzte Elgetan eta Aramaion; honartzara ezin joan eta herri-tarrak jaietan murgildu dira. Beste horrenbeste gertatu zen atzo Bergaran: ohi denez, milaka herritar batu ziren San Martzialgo erromerian. Antzuolan ere San Martziaren omenezko ekitaldiak izan dituzte aste bukaeran. Gaur, astelehenetik, San Martin jaie-tako azken eguna izango dute Aramaion. > 23-25



Elgetako asto karrerak tradizioa handia jaietan. Irudian, zapatuko partaideak; Mikel Beretxinaga eta haren astoa izan ziren azkarrenak.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

KIROLA > PILOTA

Urrutikoetxea eta Galartza txapeldun Elgetan

Bizkaira joan dira aurten Elgetako Lau t'erdiko txapelak. Egu-bakoitzeko finaletan, 23 urtez azpiko mailan, Urrutikotxekoa irabazi zion, Ugaitz Renobalesi, 22-17. Zaratamoko Urrutikotxekoa 11-1 aurreratu zen markagailuan eta Renobales gerturatu zitzaion arren, abantailari eutsi zion.

Galartza galduko arrak buelta eman zion kadete mai-lako finalari. Urbietak gogor hasi zuen partidua, 13-3 aurre-ratuz. Galartzak sasoi hobeak erakutsi zuen eta poliki Urbie-ta behera etorri zen; 22-18 gai-lendu zen Galdakaokoa. Ohi denez ikusle ugari batu zen frontoian, jai giroan. > 15

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO₂ emisioak: 165-169 g/km.

Semaforo batek zergatik
izan behar du semaforo antzik?
Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.

Ford Kuga

MUGARRI AUTOAK
Araba etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAKÓN

kugarevolution.com

Feel the difference

Goienkaria

ASTELEHENeko
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Uztaileko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

DVD-a



Bidali AG DVD 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

KAMISETA + ALPARGATAK + CD-ak



Bidali AG EUSKALPRO 5533 zkra

AGko HARPIDEDUNENTZAT SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez! Tel.: 943 08 10 50

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**HONDARRIBIKO
ARTIZARRA LANDETXEAN GAU BAT**

Zozketan sartuko dira: 08-06-17tik 08-07-10ra jasotakoak



Artizarra nekazal turismoa
www.nekatur.net/artizarra
 943 64 23 37 / 655 72 18 34

Etorri eta gozatu
inguru honetan!!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com



Gure ibarrean lau osasun unitate daude; 36 sendagile dira lanean.

GOIENKARIA

OSASUNA > SENDAGILE BERRIAK ANBULATORIOETAN

Sendagile kopurua handituko du ibarreko hainbat zentrotan Osakidetzak

BERRIAK

Ekainean barrena hasi dira lanean anbulatorioetan plaza lortu duten sendagileak

MEDIKU GEHIAGO

Irailean hasiko dira seguru aski Arrasaten eta Bergaran familia mediku berri bana

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Galtzen denean, jakiten da zer balio duen osasunak. Gaixotasunak gure bila etortzen direnean egiten dugu osasun zentrora bisita. Gurean ere mediku berria aurkitu dute kontsultara azken aldian joan direnetako batzuk. Izan ere, Osakidetzak 130 familia mediku eta pediatra berri ipintzen diharria lehen mailako asistentziako. Osakidetzatik diote, herritarren osasun arazoen %90 lehen mailako atentzio eremuuan ebazten direla.

Ibarrean ere izan da aldaketa-tarik anbulatorioetan sendagileei dagokienez. "Osasun zentroetan plaza eskuratu duten medikuak plaza horren jabe egin dira ekainean barrena eta postu horietan zeuden bitarteko sendagileek utzi egin dituzte euren lekuak. Ibarreko zentroetan plaza lortu eta sartu diren sendagileak honakoak dira: Arrasaten, Elisabete

Gametxogoikoetxea, Jesus Rubio, Jose Ignacio Alvarez eta Maite Conde; Bergaran Miren Iriarte, Idoia Bildosola, Oihana Ezkurra eta Ignacio Balzategi; Antzuolan Xabier Epaizabal; Oñatin Rosario Martinez, Maite Monje eta Anton Otegi; Aretxabaletan Susana Sampietro, Alfredo Etxarri eta Agirregomezkorta; eta Eskoriatzan Sinaita Navarro", esan digu Juan Manuel Sanzo Eskualdeko Zuzendari Medikoak.

SENDAGILE GEHIAGO

Aldaketa horietaz gain, ibarrean laster sendagile plaza berriak sortuko dituzte: "familia mediku berri bana izango dira Arrasaten eta Bergaran seguru aski irailean hasiko direnak, eta pediatra bat Oñatin. Bestalde, datorren urtean aztertuko dute Aretxabaletan eta Oñatin beste plaza bana sortzea familia medikuendako", azaldu digu Juan Manuel Sanzok.

ONURAK

Paziente bakoitzarendako kontsultan denbora gehiago izatea da helburuetako bat

KUPOAK

2009 urtea amaitzerako nahi dute mediku bakoitzak gehienez 1.500 paziente izatea

Medikuak gehituta Osakidetzako esanetan, "nabarmenki hobetuko da erabiltzailee emanago zaien asistentzia. Profesionalak lan karga gutxiago izango dutenez, kontsulta bakoitzari eskaientzen zaion denbora luzatuko da batetik, eta bestetik denbora gehiago izango dute fakultati-boek etengabeko prestakuntzarako, osasunaren sustapenerako eta prebentzio jardueretarako".

Egun familia mediku bakoitzak 1.680 erabiltzaileko kupoia du batez beste eta nahi dute 2009 urtea amaitzerako paziente kopurua 1.500era jaistea. Ibarrean lau osasun unitate daude. Bergarakoan 10 sendagile daude eta bakoitzeko batez besteko kupoia 1.624 pazientekoa da; Arrasaten 14 dira sendagileak eta kupoia 1.628koa; Oñatin 1.629ko kupoia dute batez beste sei medikuek; eta Leintzen ere sei dira sendagileak eta kupoia, berriz, 1.563koa.

Sendagile berriak sartu dira bai anbulatorioetan, hala ere, uda sasoian izaten da arazorik mediku nahikoa ez dagoelako. Juan Manuel Sanzoren esanetan, "medikuak falta dira ez soilik gurean, oro har leku guztietako arazoa da. Hortaz, mediku batek oporrak hartuz gero, bere lana lankideek bete behar dute. Medikuak egon badaude baina baliteke gehiago behar izatea eta horretarako osasun politikaren aldatzea litzateke irtenbideetako bat".

PAZIENTEEN BANAKETA

Mediku bakoitzari dagokion kopurua aldatuko denez, berrantolaketa egin beharko dute anbulatorioetan eta horrek eragina izango du erabiltzaileengana. Familia mediku batek 1.500 erabiltzailetik gorako kupoia badu, soberan dituztenak sendagile berriei pasako dizkiete. Horren helburua da aipatutako paziente kopurua bai-

no gehiago ez izatea mediku bakoitzak. Berrantolaketa egin arren, familia bakoitzeko kide guztiek mediku bera izango dute eta mediku berria egokituz gero, banan-banan emango diente aldaketaren gaineko informazioa pazienteei. Jose Manuel Sanzok azaldutakoaren arabera, "aldaketak programa informatiko batzen bidez egingo ditugu, baina familia unitateak errespetatuz. Eskatzen duguna da sei hilabeteko epea har dezaten pazienteek sendagilea ezagutzeko eta denbora tarte horren ostean, aztertuko litzateke aldaketa egin nahi izanez gero. Dena dela, erruren bat edo familia arazoren bat salbu ez da aldaketarik onartuko sendagile bakoitzaren kupoak eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko".

Medikuak ez ezik, aurrerantzean asmoa du Osakidetzak eriazin eta administrazioko langile gehiago hartzeko.

INGURUMENA > KONPOSTAJE-PLANTA DEBAGOIENEAN

Aldundiak konpostaje-planta egiteko konpromisoa hartu du

Gipuzkoako laugarren konpostaje-planta Degaboienean jarriko du Diputazioak

Konpost garbia ateratzea da helburua, gero, hemengo baserriean erabiltzeko

ARRITXU BARRUSO > BERGARA
Debagoinenak bere konpostaje-planta propioa izango du. Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzez, konpromiso hori hartu duela adierazi du Pedro Lasagabaster Mankomunitateko Ingurumen saileko buruak.

2016 urterako hondakinen %57 birziklatu edo konpost bihurtzea da Gipuzkoako Diputazioaren asmoa. Aurreikuspenen arabera Gipuzkoan 550.000 tona zabor sortuko da zortzi urte barru, eta helburua da horietatik 60.000 konpost bilakatzea.

Horretarako, Diputazioak hiru planta egiteko asmoa zuen hasiera batean: Azpeitian bat, Donostian beste bat, eta Goierrin hirugarrena. Hori horrela izango dela dirudi, baina, hiru horiez gain beste planta bat ere egingo dute, laugarren hau Debagoinen. Pedro Lasagabasterren arabera hainbat bilera izan dituzte azken asteotan Diputazioarekin, eta desadostasun batzuk egon diren arren, akordioak ere lortu dituzte; horietako bat da gure ibarrean konpostaje-planta bat eraikitzenarena. Epelen edo Akein jartza aurreikusten dute Mankomunitateak materia organikoa biltzeko konpromiso serioa hartu duela azaldu du Lasagabasterrek.

KONPOSTAREN ABANTAILAK
Gipuzkoak arazo handia dauka zaborrak kudeatzeari dagokionean. Konpostajearekin, ordea, sortzen dugun zaborra erdira jaistea lortuko genuke, eta hori



Debagoinenak konpostaje planta propioa izango du.

GOENKARIA

aurrerapausu garrantzitsua litzateke. "Inork ez du nahi bere aldamean zabortegirik edo erraus-tegirik. Badirudi zaborra poltsan sartu eta edukiontzira botatzen dugunean zaborraren arazoa desagertu egiten dela. Baina denok dakigu beste eskualde batuetan sekulako arazoak dituztela eta jende asko oso haseurre dagoela" dio Lasagabasterrek. Bestalde, konpostaje-planta Debagoinen bertan egoteak,

garraioan ere eragin zuzena izango luke. Garraioaren kostua ere gutxitu egingo litzateke-eta.

Mankomunitateko Ingurumen saileko buruak uste du, gainera, lekuaren lekukoa kudeatu behar dela: "Hemen sortzen dugun zaborra, hemen kudeatu behar da, hori da logikoena".

KONPOST GARBIA
Materia organikoa hemen bilakatuko litzateke konpost, eta asmoa da, gainera, konpost hori ibarrean bertan erabiltzea. Nekazaritzarako erabili ahal izatea litzateke egokiena. Horretarako, baina konpost garbia lortu behar da. "Katalunia inguruan ibili gara beste planta batzuk bisitatzentz. Han, konpost nahiko zikina lortzen dute eta obra zibil-letarako erabiltzen dute. Gure asmoa konpost garbia lortzea da. Horretarako, ezinbestekoa da herritarren konpromisoa. Garrantzitsua da herritarrek

Konpost garbia lortu nahi badugu ezinbestekoa da herritarrek zaborra ondo bereiztea

Materia organikoa ibarrean bilakatuko da konpost eta hori, gero, hemen erabiliko da

bereizketa ongi egitea eta materia organikoarekin batera besetarriko ez botatzea".

Konpostaje-plantaren lekua ere nahiko zehaztuta daukate. Epelen edo Akein egongo litzateke, Kanpazar inguruan. "Gure lana lekua edo lurra jartzeari litzateke. Guk lekua jarri gero, Diputazioaren konpromisoa izan da eurak finantzatuko dutela konpostaje-planta" adierazi du Pedro Lasagabasterrek.

Konpostajearekin sortzen dugun zabor kopurua erdira jaistea lortuko genuke

Konpostaje-planta Epelen edo Akein egitea aurreikusten du Mankomunitateak

UDALBILTZA AUZIA

Auziak funts juridikorik ez duela salatu dute

Auziperatutako bi lagunek Kulturaten hitzaldia egin zuten egubakoitzean

A.B. > ARRASATE

Arrasateko Kulturaten Udalbiltza auziaren gaineko hitzaldia eskaini zuten, egubakoitz arratsaldean, kasuan auziperatutako bi lagunek. Bailarako udal hautetsi guztiei zuendutako hitzaldia izan zen.

Izan ere, aurten bost urte bete dira Udalbiltzaren aurkako polizia operazioa hasi zenetik, eta kasuan auzipetu-tako 22 lagunak epaiketaren atarian daude. Auziperatuek, Arrasaten egindako agerral-dian, Udalbiltzaren auziak funts juridikorik ez duela salatu zuten. Pertsonak epai-tearekin lortu nahi dutena Udalbiltza bera desagertu araztea dela adierazi zuten.

> KULTURA
Oskorrik eta Oñatiko bandak, hilaren 18an, kontzertua egingo dute

Oskorrik 35. urteurrena ospatzeko *Oskorri Banda band* diskoka kaleratu zuen 2007ko ekainean. Ordutik diskoa herririk herri aurkezten dihardute udalerrri horietako udal bandekin batera. Uztailaren 18an Oñatiaren txanda izango da. *Oskorri Banda band* diskoa 14 abestik osatzen dute eta tartean dira *Furra-furra* abesti famatua, *Desertorea* edo umeen kantuakin egindako popurria.

Oñatiko Udal Banda Kor-pusti Jain ostean hasi zen entseatzen. Orain arte, bakkariak jardun dute kontzertua prestatzen, baina, hilaren 16an Oskorri taldearekin entseatuko dute. Sarrerak 10 euroren truke daude salgai kultura etxearen.

Kayak Taberna Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behe • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitardekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

ARRASATE > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Zerrajerako etxeak inauguratuko dituzte gaur

Javier Madrazo
Jaurlaritzako
Etxebizitza eta Gizarte
gaietako sailburua eta
Oihana Aranburu
alkatea jardunean
izango dira ekitaldian

EDU MENDIBIL > BERGARA
Gaur, astelehen, Arrasateko Nafarroa Etorbidean egin dituzten babes ofizialeko 100 etxebizitzen inaugurazioa egindo dute. Ekitaldia 12:00etan izango da eta han izango dira, besteak beste, Javier Madrazo Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietako sailburua eta Oihana Aranburu Arrasateko alkatea jardunean.

Aipatutako etxe berriak hiltegiaren ondoko biribilean, Man komunitateko egoitza berriaren



Argazkian, Nafarroa Etorbidean egin dituzten babes ofizialeko etxeak.

MIREIA BIKUÑA

parean egin dituzte; babes ofizialeko etxebizitzok adjudikatuta daude dagoeneko eta antza denez udako oporren ostean erabiltze-

ko moduan izango dira. Madrazo sailburuak egindako lanen eta, era berean, etorkizunerako asmoen berri emango du gaur.

Hain zuzen ere, Arrasaterako aurrekuskaitako beste asmo batzuk aurreratuko dituzte gaurko agerraldian Madrazo

sailburuak eta Oihana Aranburu alkateak.

ETXE GEHIAGO BERTAN

Jaurlaritzaren menpe dagoen Visesa elkartek eraiki ditu gaur inauguratuko dituzten etxebizitzak. Bi bloketan banatuta daude. Aipatutako blokeen atzean dagoen lursailean ere etxebizitza gehiago eraikitzeo asmoa dago. Arrasateko Udalak lursaila salduko dio Jaurlaritzari, iazko abenduko osoko bilkuraren erabaki zutenez. Etxebizitza sailak gestionatuko lituzke etxe berriak eta trukean Udalak 5.274.000 euro jasoko ditu. 4,9 milioi euro dirutan jasoko du Udalak eta gainerako promozioko hainbat lokaletan bitartez. Aipatutako lursailaren ustiketa adjudikatzeko zegoen aurreko legealdirik. Orduan ez zen inolako eskaera rik jaso bertan alokairuzko 216 etxe egin ahal izateko, Kutxak interesa azaldu zuen arren.

OÑATI > ZUBIKOA ETA KALEGOIENA

Parking publikoak, ordaintzekoak Oñatin

Lehen ordu erdia doakoa izango da eta 31. minututik aurrera ordaindu egin beharko da; ordubete, 0,35 euro kobratuko dute

ra ordaindu egin beharko da. Ordubetez aparkatzearren 0,35 euro ordaindu beharko da; ordu eta erdi, 0,75 euro eta bi ordu 1,15 euro. Zubikoako zein Kalegoienako parkingetan minutukako ordainketa aplikatuko da, iazko udan Gipuzkoan indarrean sartutako araudia jarraituz.

172 TOKI LIBRE

Zubikoan jendearendako 101 aparkaleku libre daude eta Kalegoienan, aldi, 71 ibilgailurendako tokia dago. Gauerditik 07:00ak arte itxita izango da, baina ticketarekin edozein ordutan irten ahal izango da parkingetatik.



Argazkian, Kalegoienako lurrazpiko parkinga.

MIREIA BIKUÑA

> BERGARA
Odol ateratzea egingo dute eguztenean Bergaran

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak dei egiten du etzi, eguztena, Seminarioan egingo den odol ateratzean parte hartzeko. Ohi denez, 18:30etik aurrera egingo dute. Abuztuko oporren aurretik azken ateratzea izango da. Uztailaren 23an izango da azkena. Abuztuko atsedenaren ostean, irailean beste bi hitzordu izango dira, irailaren 10ean eta 24an hain justu ere.

Bestalde, Oñatin, abuztuko oporren ostean egingo dute hurrengo odol ateratzea, irailaren 12an, ohiko lekuaren Txantxiku Ikastolan.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIAREN ZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
zurekin

Eguenean aurtengo Eskola Ibil-tariari eman zioten hasiera Bergaran Ikasle Abertzaleak.

Euskal Eskola Nazionala helburu duen ekimen horrek gai nagusia izan du: Euskal Herria eta

negoziaketa prozesuak. Baino, bestelako gaietaz ere jardun dute. Unai Txurruka antolatzai-

le lanetan ibili da eta edizio honetako xehetasunak azaldu dizkigu.

Unai Txurruka > Eskola Ibiltariaren antolatzailea

"Saiatzen gara metodologia ahalik eta parte hartzaileena eta zabalena izaten"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Eskola Ibiltaria Bergaran hasi zen egunean eta Azpeitira iritsi zen zapatuan. Hiru egunotan ikasi eta ikusitakoa eta ekimen horren helburu nagusietaz hitz egin digu datozen lerroetan Unai Txurruka antolatzaileak.

Zer da Eskola Ibiltaria?

Ikasle Abertzaleak bultzaturiko proiektua da. Ikasturte amaieran Euskal Eskola Nazionalaren gainean egiten dugu irudikapena, hiru eguneko ibilbidearen bidez. Leloa *Euskal Herria da gure eskola* da. Helburu nagusiena da Euskal Herriko hainbat tokitik pasatzean bertako errealitatea ezagutzea. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izan da.

Horren harira, hainbat eredu pedagogiko jorratu zenituzten horretarako...

Bai, hala da. Toki batera joatean eta bertako ikastean datza hori. Saiatzen gara metodologia ahalik eta parte hartzaileena eta zabalena izaten. Aurten, gainera, berrikuntza egin dugu horren gainean: Eskola Berria filosofia-rekin planteatu zen ikasleek irakasleei irakatsi behar zietela, bakoitzak bere ikuspegia azalduz.

Hori berrikuntza bat izan zen. Zer beste berrikuntza izan dira aurtengo edizioan?

Aurreko urtean, klaseak era-ginkorragoak izate aldera, gai nagusi zentrala jarri genuen. Iaz Galdamesetik Santutxura joan ginuen eta gaia ingurumenarekin, gizarte ereduekin eta herri mugimenduarekin lotuta egon zen. Aurten ere gai nagusia zehaztu dugu: Euskal Herriko historia eta bereziki negoziaketa prozesuak. Bergarakoan hasi eta Azpeitiranoko bidea hartu genuen,



Irudian, Unai Txurruka, aurtengo Eskola Ibiltariari hasieran.

OIHANA ELORTZA

Telesforo Monzonetik abiatuta; zehazki, Txibertako mahaitik. Handik Loiolara joan ginuen. Loiolan pil-pilean dagoen gaia ukitu genuen: 2006ko elkarritzeta garrantzitsuak, Euskal Herriko historian tokia izango luketenak.

Gai horrez gain, zeharkatu dituzu lur eta herrien inguruko eskolak ere antolatu zenituzten. Bergaran, esaterako, zeren gainean izan ziren eskola horiek?

Telesforo Monzonen bizitza eta ibilbidea ezagutzeko aukera izan

genuen. Bere etxe parean egin genituen eskolak eta bere bizitza gogorra ekarri genuen, hainbat datu emanez. Horretaz aparte, udaletxeen ere egon ginuen. Azken finean, Euskal Herriko historian toki garrantzitsua du eta Bergarak.

Antzuolatik ere pasa zineten joan den egunean; Bergaran egon zineten egun berean. Zertaz jardun zenuten han?

Proiektu hezitzaile aurrerakoaren berri jaso genuen. *Euskal Herria da gure eskola* leloarekin lotuta dago. Haurrekin nola egiten dute lan ezagutu ahal izan genuen han.

Debagoienean izan ez bada ere, Abiadura Handiko Trenak tarre garrantzitsua izan zuen Eskola Ibiltarian...

Hala da. Urretxun hartz genituen gai horren gaineko eskolak. Arkitektura ikasleek diziplinarekin lotutako informazioa eskaini ziguten. Ez genuen eragin ekologikoaz bakarrik hitz egin, eragin sozialaz ere jardun genuen. Egubakoitzean Urretxuko ingurunean zer nolako kalteak eragingo dituen ikusi genuen eta zapatuan, berriz, Azkoitian eta Azpeitian trena pasa behar den tokietatik igaro ginuen.

Nola baloratzen duzue aurten-go edizioa?

Bergarakoan 25 lagun inguru irten ginuen baina, herriatik pasa ahala, lantaldea handitzen joan zen. Aparteko giroa izan zen hiru egunetan. Leku ezberdinako ikasleek parte hartu dute eta elkar ezagutzeko aukera paregabeara izan dute.

Horren harira, elkar ezagutzeko planteamendu berezia jarri duzue aurten abian...

Bai. Matrikulazio unetik, bost lan talde osatu ziren, Eskola Ibiltaria hasi aurretik elkar ezagutzeko. Helburua zen antolaketan laguntzea eta ikasle ezberdinak ezagutzea; urratsak ematea parte hartzean.

Euskarak batzen gaitu



Astelehenetik barikura
eguneko menua

Asteburueta
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Udal Euskaltegian matrikula egiteko

Udal Euskaltegiaren udako ikastaroetako matrikulazio epea zabalik dago. EGA agiria atera, euskara sakondu, euskalkia hobeto ezagutu... gura duenak horretarako aukera du. Argibideak: 943 79 70 77.

BERGARA

> Musika eskolako zerrendak, ikusgai

Musika eskolak datorren ikasturterako Hizkuntza Musikaleko eta Ahots Teknikako ikasleen zerrendak eta ordutegiak jendaurrean ipini ditu. Eskolako sarrerako iragarki tauelan ikusi ahal izango dira 09:00etatik 13:00etara bitartean.

BERGARA

> San Martzialgo mahaien eta aulkien fidantza

San Martzialgo erromeriarako mahaiak eta jesarlekuak alokatu dituztenek horiei dagokien fidantza jaso dezakete hilaren 8tik 14ra arte, biak barne, astegunetan, kultura etxearen, 18:00etatik 21:00etara.

BERGARA

> Gazte Informazio Gunearen ordutegia

Gazte Informazio Guneak honako ordutegia du uztailaren: 11:00etatik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara. Abuztuan itxita egongo da. Errotalde jauregian dago gune hori.

OÑATI

> 1964an jaiotakoekkin-tada egindo dute

1964an jaiotako oñatiarrek kinto ospakizuna egindo dute hilaren 19an, eta izenematea hilaren 15a baino lehen egin behar da, 30 euro sartuta Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0005 36 0050044096. Oñati tabernan batuko dira 13:00etan, eta bazkaria Etxe Aundira joango dira, 14:30ean.

ANTZUOLA

> Elkartasun afarirako izena eman daiteke

Elkartasun jaia antolatu du Anelkarrek hilaren 12rako, eta afaria eta guatekea egongo dira. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 9a arte, honako dendetan: Nerea drogeria, Itzar liburudenda eta Gorosti eta Ongi Etorri tabernak.

BERGARA

> Alardearen entsegua etzi egingo dute

Alardearen entsegua egingo dute etzi, eguztena, 21:00etan. Danborjole, txistulari eta esko-petariendako da deia.

ARETXABAleta

> Yoga ikastaroa eman-go du Aredhanak

Aredhana yoga eta psikoterapia eskolak yoga ikastaroa emango du uztaleko martitzen

BERGARA

> Udal Euskaltegiak Euskararen Gaitasun Agiria ateratzeko ikastaroa antolatu du

Bergarako Udal Euskaltegiak EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) atera nahi dutenei zuzendutako ikastaro trinkoa antolatu du. Irailean izango da, 17:00etatik 20:00etara, eta matrikula egiteko epea etzi, eguztena, bukatuko da. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 44 53 telefona, 08:00etatik 14:30era.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

eta eguenetan, 20:00etan. Hasiberriendako ere egokia da. Argibideak: 616 96 57 95.

ANTZUOLA

> Elkartasun afarirako izena eman daiteke

Elkartasun jaia antolatu du Anelkarrek hilaren 12rako, eta afaria eta guatekea egongo dira. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 9a arte, honako dendetan: Nerea drogeria, Itzar liburudenda eta Gorosti eta Ongi Etorri tabernak.

BERGARA

kale inuesta**Joaten zara San Ferminetara? Iruñako entzierroak ikusteko ohiturarik baduzu?**

Pilar Agirre
Etxekoandrea
Bergara



Josu Rodriguez
Langilea
Bergara



Maitane Azkarate
Ikaslea eta langilea
Bergara



Oihana Iñurrategi
Langilea
Bergara

Ez naiz inoiz izan San Ferminetan baina badut ohitura entzierroak ikusteko. Gustatzen zait zuzean ikustea, baina larritasuna sartzen zait; gero botatzen dituzten errepiakenak lasaiago ikusten ditut.

San Ferminetan egon naiz, behin Lesakan eta gehiagotan Iruñan. Autobusean joan izan naiz, gaupasa egitera. Baina entzierroak ez ditut ikusten, animalien aurkako erasoak dela uste dut eta ez ditut ikusten.

Iruñako San Ferminetan ez naiz inoiz egon baina Lesakan bai; oso giro ona egoten da. Aurten ere badut gogoa, baina ezin dut, lanagatik. Entzierroak parean tokatuz gero ikusten ditut, ez naiz horretarako jaikitzen.

Lesakan egon naiz, baina Iruñan sekula ez eta aurten ere ez noa. Ez naiz jaikitzen entzierroak ikustera, gurago dut ohean egon, baina gero gustatzen zait jakitea zer geratu den, interneteko argazkiak ikusit...

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goinenkaria@goinena.com

ONATI**> Olabarrieta auzora doan errepidearen egoera txarra**

Onatiar batek jakin gura du Olabarrieta auzora doan bidea noiz konpondu behar duten. "Errepidearen zati hori zuloz beteta dago. Aspalditik, gainera, eta bada garaia konpontzeko, autoko gurpilak zulatu behar zaizkigu laster eta", kexatu da oñatiarra.

BERGARA**> Txakurrak lorategietako loren artean**

Bergarako mutil batek deitu du esateko txakur bat baino gehiago ikusi dituela herriko lorategietan, loreak zapaltzen, jabeek kasurik egin barik. "Bergarako lorategiak oso politak daude, duela gutxi apaindu dituzte lore berrieikin baina batzuk ez dira kontratu, antza. Berdegune batzuetan kartelak ere badaude jarrita txakurrak ezin direla barrura sartu esateko, baina alferrik", dio

ONATI**> Pozik Zañartuko pasealeku argiztatuko dutelako**

Onatiar bat pozik dago Zañartu auzoko pasealekuaren argiak jarriko dituztelako. "Egubakoitzeko Goienkarian irakurri dut notizia, eta asko poztu naiz. Jende asko ibiltzen gara Zañartutik Gargalzara bitartean oinez, antxintxika edo bizikletan, eta ez dago batere argirik. Autoak ere ibiltzen dira, eta argiekin zailagoa izango da istripuak egotea ere. Poztu naiz notizia hori irakurtzean", esan digu telefonoz oñatiarrak. Lanak ahalik eta azkarren egitea ere eskatu du, bide batez.

usteak uste

Oihana Elortza

**Uztailak 7,
aupa
San Fermín**

Iruñara noa gaur, San Ferminetara. Hori da asmoa, behintzat. Hiru aldiz gauez disfrutatu ditut jai horiek eta behin egunez, uztailaren 6 batean. Gogoan dut ez nintzela eguerdirako garaiz iritsi Gaztelu Plaza; auto barruan jantzi nuen zapia lepoan, irratian txupinazoa entzun ahalaz bat. Aurten Iruñako hoteletan tokia ei dago oraindik, dolarra eta euroaren arteko aldeagatik edo, baina jenderik ez da faltako hala ere. Nabarriako iturria, gainezka egongo diren tabernak, erraldoiak, txarangak, jendea, iruindarrak, zezen plazara joango diren peñak, Estafeta kalea ...

Niretako martitzenak izaten dira, askotan, asteko egunik txarrenak. Eta aste honetan ere bai. Ah, Zorionak, Xabi, Iker eta Aimar.

zorroztaila

Oier Bolibar

Uda berriro ere

"Oporrak gaur hasten dira espainiar askorentzat, eta urtero legez, euren autoak hartuko dituzte Spainia osoko kostaldetara edo herrietara joateko. Uztaleko lehenbiziko astebururako aurreikusita dauden 4,3 milioi joan-eterrieta, Trafikoko Zuzendaritz Nagusiak (DGT) udako oporetako operazio bereziari hasiera emanago dio"

El Diario Vasco > 2008-07-04



Uda iragartzen duten egutegiaren orriak jausten doaz: San Juan suaren txingarrak itzaldu dira, San Martzial parrандeroak biharamona du Bergaran, Elgetako astoei hurrengo urterarteko bakea eman diete, eta gaur, San Fermín. Eguzkia eta tiranteak apenas ikusi ditugun arren, urtero errepikatzenten diren ekintzak udan gaudela adierazten digute. Topikoetan topikoena, artaldearen exodoa, *irteera operazioa*. Oraingoan, bardulia menderakaitz honetan gehien irakurtzen den berriparek operazioaren nondik norakoa ederto zedarritzen digu: Espainiarren oporrak Espainiar lurraldean barne. Ez da marea gorriaren ondorengo txapapotea, Kontxako badiako berezko kresala baizik. Ahal dute.

Diotez, topikoak beharrezkoak dira, horrexegaitik ote ez gaitu harritu gazteleraren aldeko manifestuak kaleratzea (indar arau guztiak bere alde dauka-eta), eta osteria, euskararen erabilera bermatzeko dekretu apal bat argitaratu behar izatea. Zeren esan ohi da urterokoek segurtasuna ematen digutela, gauzak bere tokian izatearen bermea ematen digutela. Eta topikoak topiko, udan gaude berriro, zorion uneren bat topatzeko urtaro aproposenean.

Hortaz, horixe opa dizut, San Fermín eguneko zutabe honetara arrimatu zaren irakurle horri: izan dezazula uda honetan zorion une bat, gutxienez. Ze buelta gogorra izango da, topikoz beteta, baina latza:

lanari eusteko zortea dutenek 65

ordura gerturatuko dira astean, "what crisis"-ak gogor jipoituko gaitu, Interneteko dohako deskargak bukatzean egongo dira, eta antzoki politikoak (hori bai topikol) orain arte bezala aspertu arte astinduko gaitu. Hori etorkinak ez garenontzat: "orain erbestearitu egingo naute, orain botua ematen utziko didate, interesen arabera erabiltzen naute". Lehen munduan oporrak izateko zortea dugunontzat.

Zorion unearen lagungarritxo bat: *Antzararen bidea* irakurri. Topikoak alde batera lagatzen eta disfrutatzen lagunduko ditzu.

"EZ DA MAREA GORRIAREN ONDORENGO TXAPAPOTEA, KONTXAKO BADIKO KRESALA BAIZIK!"

"HORIXE OPA DIZUT: IZAN DEZAZULA ZORION UNE BAT, GUTXIENEZ!"

Goienkaria

Argiratzailea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Etxepa Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Mireia Bikúña, Arritu Barruso, Oihana Elortza Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gauntzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goinena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañar Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goinena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goinena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goinena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goinena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA

Urte amaieran posta bulego berria zabalduko dute Ibargarai kaleko 17. zenbakian > 11



> OÑATI

Eroskik Arantzazu kaleko supermarketua eraberritzeko hitzarmena sinatu du Udalarekin > 12



> ESKORIATZA

Ibarraundi museoko inguruneko obren baldintzen plegua gertu dago > 13



MUSAKOLAN Ondoan Rocioko jaia ospatzen zela-eta, jende asko hurbildu zen Musakolara esklerosiaren gaineko informazioa jasotzen eta produktuak erostera.

JUAN ANTONIO UNZURRUNZAGA

ARRASATE > 'BUSTI ZAITEZ' KAMPAINA

Lainopean ezin igeri egin, baina esklerosiaren alde lanean Musakolan

ESKLEROSIA 200 bat lagun gerturatuz ziren Musakolara GEAEren kanpainarekin bat egitera

'BUSTI ZAITEZ' GEAE elkartearen arabera, Arrasaten oso erantzun ona jasotzen dute urtero

EDU MENDIBIL > ARRASATE Seigarren urtez, esklerosi anizkoitzaren aldeko *Busti zaitez* kanpaina egin zuten atzo Arrasaten, Musakolako igerilekuaren. Aurten ere ez zuten zortea aldeko izan Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteko (GEAE) kideek: eguraldi kaskarra egin zuen uretan murgiltzeko. Izan ere, esklerosiaren sentzibilizazioa pizteko asmoz, kanpainaren leloari jarraituz, jendea *bustitzea*, bainatzea zen helburuetako bat. Ez zen atzo egunik aproposena horretarako. Berorik ez, eta igerilekuko ura *fresco* samarra. Dena dela, antolatzaileak pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin.

ERANTZUN ONA Guztira, 300 bat lagun gerturatuz ziren Musakolara GEAEren deialdiarekin bat egitera, baina gutxi

batzuk animatu ziren uretan sartzen. Eroski ondoan Rocioko jaia ospatu zuten atzo eta handik asko eta asko hurbildu ziren Musakolara. Aurten ere Arrasateko Toki

Argi elkarteko kideen laguntza izan zuten antolatzaleek. Hoge bat lagunek jardun zuten materia saltzen eta informazioa banatzan.

Errehabilitazio errekurtoa finantzatzeko bideratzen dute kanpainan batutakoa

Esklerosiaren alde atzo Arrasaten egindako jardunaldia datorren astean egingo den kanpainari aurreratu zaio aurten. Domekan, hilaren 13an, Donostian, Hondarribian, Errenterian, Orion, Zarautzen, Zumaien, Eibarren, Tolosan, Azpeitian eta Urretxun egingo dute *Busti zaitez* kanpaina. Iaz 40.000 lagunek hartzutzen parte eta marka hura gainditzea da helburua. Jasotako dirua errehabilitazio errekurtoak finantzatzeko bideratzen ditu GEAEk (www.ademgi.org). Elkarteko iturrien arabera Osakidetzako laguntza ez delako nahikoa. Esklerosi gaixotasun neurologikoa da eta errehabilitazio fisiko zein psikologikoa berebikizo garrantzia dauka. Iazko maiatzean esklerosi anizkoitzaren eta beste gaixotasuna neurologikoen zentroa ireki zuten Donostian, Intxaurrondon, Zarategi pasealekuko 68. zenbakian.

Zuriñe Lopez GEAEko komunikazio arduradunaren hitzetan, "kanpaina honetan Arrasate izaten da izarretako bat, oso erantzun ona jaso izan dugulako beti. Iaz 1.200 euro inguru batu genituen. Eskertzekoa da ibarreko jendearen babesea zein Toki Argikoen laguntza". Esklerosiak jotako gai xoak gehiago badira ere, elkartekoak Debagoieneko 20 baziak ditu. Gipuzkoan, orotara, 650 lagunek daukate esklerosi. Gaixotasun sendagaitza da, galera fisiko zein psikologikoa dakarrena.

Juan Antonio Unzurrunzaga bergararra GEAEko kidea da. "Horrelako ekimenak beti dira positiboak, gure problematika gizarteratzeko. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei". Datorren urterako eskaera bakarra: eguraldiak lagundu dezala.



Zabaletako merkataritza gunea irudiaren ezkerraldean -etxe zaharra dagoen tokitik hasita- eraikitza aurreikusi zuten 2007ko otsaileko Osoko bilkuran. Egun, proiektua etenda dago.

GOIENKARIA

HIRIGINTZA > ZABALETAKO MERKATARITZA GUNEAREN PROIEKTUA

Ezker Batua-Zutik pozik agertu da Zabaleta proiektua albo batera utzi delako

Proiektua etenda dago, baina atzera botatzea osoko bilkuran berretsi beharko da orain. Bestalde, EB-Zutik-ek Eroski handitzeko proiektuan erabaki bera hartzeko eskatu du

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Bere garaian oihartzun handia izan zuen proiektua izan zen Zabaleta merkataritza gunea zabaltzearena. Ibai Arte merkataritza elkartekoak merkataritza eremua erdigunean egitea eskatu tuz oso entzutesua izan zen kampaña abiarazi zuen. Besteak beste, erakusleihoa beltzez jantzi edota bertan "Kaleak bizirik, zen- tro komertziala hemen" zioten kartelak jarri zituzten euren ezi- negona adierazteko.

EB-ZUTIK POZIK, BAINA EZ ERABAT

Pasa den eguztenean Udaleko Hirigintza sailak atzera bota zuen Zabaletako eremuan merkatal zentroa eraikitzeko aurreproiek- tua. Hau da, plan berezia gauza- tzeko txostenetan ez zuten onartu. Erabaki honen inguruan adie- razpenak egiten lehena Ezker Batua-Zutik udal taldea izan da. Pozik agertu dira Hirigintza batzordearen erabakiaz, baina Zabaletako proiektuan atzematen ziren irregularasunak ikusita,

proiektua atzera botatzeko bi urte behar izana salatu zuten. Eta "are gehiago", diote, "irregularasun hauek Ibai Arte merkataritza elkartearren eta alderdi ezkertia- ren aldetik planteatu zirenean".

EROSKIREN HANDITZEA, BERDIN

Ezker Batuak-Zutik koalizioak Eroski hipermerkatuaren zabal- tzearen proiektuarentzat erabaki berbera hartu dezaten eskatu du. Hauen ustez, Kaskonategi deritzen proiektu honek Zabaleta proiek-

tua bezain legez kanpokoa da. "Ez du zentzurik Zabaleta planak toki- ko lurralde plana betetzen ez due- la esatea, eta gero Kaskonategi proiektua onartzea, ondoan koka- tua eta 13.000 metro koadroko muga gainditzen duen sabaia izan- go duena" adierazi zuten. Azkenik, "eremu publikoen pribatizazioa ekiditeko eta herriaren bilakaera orekatu eta harmonikoa lortzeko egokiena bi proiektu hauek albo- ratzea da" gaineratu zuten Ezker Batua-Zutikekoek.

Elkartasun Eguneko bizikleta etxera

Ume dendak Gobernuz Kanpoko erakundeen aldeko Elkartasun Egunean antolatu zuen zozketaren irabazlea badakigu nor den. Manu Aranburu aramaioarrak eraman du saria, bera izan zen-eta 1.239 zenbaki sarituaren jabea. Bizikleta paregabea eraman du etxera Manuk, ezin da kexatu.

Ume dendak zozketan atera duten dirua Indiako Mumbai hiriko galduztako neskatxoen haurtzain- degi bati emango diote.



GOIENKARIA

UDALA > UZTAILEKO OSOKO BILKURA

Laburra eta partehartze gutxiko osokoa egin zuten

Sozialistak joan egin ziren, Ino Galparsororen argazkia ez zutelako kendu gura izan

U.M. > ARRASATE

Kontutxo batzuk besterik ezin daitezke nabarmendu eguneko osoko bilkuratik: sozialistek planto egin zutela, oso laburra izan zela (20 minuto eskas) eta etxebizitza kontuekin lotutako bi gai onartu zituztela.

Ino Galparsoro alkatearen argazkia dela-eta egin zuten alde sozialistek. Alkatearen lekuaren dagoen haren argazkia

kentzeko eskatu zuten sozialistek, baina jarduneko alkateak du hori erabakitzeko esku- mena, eta Oihana Aranburuk erabaki zuen argazkiak bere lekuaren segituko zuela. Sozialis- tek alde egin zuten orduan.

Etxebizitzei dagokienez, Pometasako proiektua onartu egin zuten eta Uribarri eta Gel- makoa etxeen zozketa Jaurlari- tzak egitea erabaki zuten.

ZERBITZUAK > IBARGARAI KALEAN ZABALDUKO DUTE POSTA ZERBITZUKO BULEGO BERRIA

Urte amaierarako posta bulego berria zabalduko dute

Posta zerbitzu
bulegoak 18 urte
inguru darama
Burdiñate kalean

Lokal berriarekin
bulegoa Burdiñaten
geldituko da eta posta
zerbitzua Ibargarain

JASONE ZABALA > BERGARA
Burdiñate kalean dagoen posta eta telegrafoen bulegoak, aldaketak izango ditu datozen hilabeteetan. Gaur egun bulegoa eta posta zerbitzua lokal berae daude. Baina "aire berri bat" emateko asmoz bi lokal ezberdinatetan banatuko dute zerbitzua, Carlos Armaiz Bergarako posta eta telegrafoen bulegoko arduradunak esan digunez. Arnaizek gehitu du lokal aldaketa horrek zerbitzuen hobetzea ere ekarriko duela eta bai langile zein bezeroendako izango dela positiboa.

Horrela, Burdiñate kaleko lokala bezeroendako itxi egingo da eta soilik bertako langileek erabiliko dute. Guztira, herri gunean zortzi posta banatziale daude une honetan Bergaran, eta beste bost dira auzoetan ibiltzen



Urria aldera posta bulego berria zabalduko dute Ibargarai kaleko 17 zenbakiko lokalean.

JASONE ZABALA

direnak. "Hauek Burdiñateko lokalaren jarraituko dute lanean, eta egunean banatu beharreko posta bertan batuko dute", adierazi digu Andres Diez posta batzaileen arduradunak.

LOKAL BERRIA BEZEROENDAKO
Bezeroak, berriz, Ibargarai kaleko 17. zenbakiko etxebizitzako lokaletan kokatuko den bulego

berriro joan beharko dute, posta botatzeko, jasotzeko, eta besete zereginetarako. Orain arte posta kutxatilak Burdiñateko lokalaren izan duenak, lokal berria egiten dutenean bulego berrira joan beharko da. Hori baina, urte amaieran izango da, datorren urria edo azaro aldera; lanak aurreratuta doazen arren lokal berria egiten ari baitira oraindik.

LAUGARREN KOKALEKUA

Bergarako posta zerbitzuaren bulegoak hainbat kokaleku ezberdin izan ditu urteetan zehar. Lehenengo posta bulegoa herriko plazan egon zen –orain Kutxa dagoen lekuaren. Ondoren Maserreka kalera eraman zuten –Pertxa elkartearren ondoan dagoen pasabidean– eta duela 18 urte inguru, Burdiñaten ipini zuten.

UDALA > ASTELEHENEAN OSOKO BILKURA ZUTEN

Udala, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartuko da

Bergara UEMAn,
Udalerrri Euskaldunen
Mankomunitatean
sartzeko erabakia
hartu zuen udalbatzak
osoko bilkuran

J.Z. > BERGARA
Orain artean, Antzuola eta Ara-
maio izan dira Udalerrri Euskal-
dunen Mankomunitatean sart-
tuta zeuden Debagoieneko herri
bakarrak, baina hemendik
aurrera, Bergara ere gehituko
zaie.

Horixe erabaki zuen Berga-
rako udalbatzak astelihenean
egindako osoko bilkuran. Hasie-
ra baten, UEMAn sartzeko bal-
dintzetako bat zen herritarren
ehuneko 80a euskalduna izatea,

baina legegintzaldi berriarekin kopurua ehuneko 70era jaitsi zen, eta Bergarak baldintza hori betetzen zuela ikusita, Udal gobernuak harremetan jarri zen kide egiteko asmoarekin. UEMAk Udal gobernuko alderdiekin bildu ziren lehenengo, eta gero batzordeetan gaineko alderdiekin.

UEMA-N SARTZEA, URRATS BAT

Agurne Barruso alkateak azal-
du duenez, UEMAn sartzea
urrats bat izango da Bergara
euskarra ezagutzen duen herri
bat izatetik, euskaraz bizi den
herri bat izaterako bidean.

Dena den, orain artean, eta
egoera soziolinguistikoa dela
eta, herri txikiak izan dira
gehiengatik UEMAk kideak.
Barrusok esan du, baldintza
berriekin herri handiagoak ere
sartuko direla, eta horrek UEMA

ren dinamika moldatzea ekar dezakeela. Osoko bilkuran, Udal gobernuko 9 zinegotziez gain, EAk ere aldeko bota eman zuen, eta alderdi jeltzalea eta sozialistak kontra agertu ziren. Barrusok EAJren jarrera kritikatu du.

EAJ EZ DAGO GUZTIZ ADOS

Bergarako EAJko German Muruamendiarazekin harremetan jarrita, esan digu Bergara azken urteotan lan handia egin dela euskarari dagokionean, eta oraindik bide luzea egiteko dagoen arren, ez dutela uste UEMAk, dituen ezaugariengatik, orain dauden balia-
bideak baino gehiago eskaini ahal dituenik. Gaineratu du, erakundeetatik, Euskara sailburuordetzatik esaterako, euskararen inguruko zerbitzuak ere eskaintzen direla.

LEHIAKETA > EZAGUTUTAKO LEKUEN GOMENDIOAK

'Gomendatzen dizut: merezi du!' lehiaketa martxan

Gomendioak irailaren
30a arte aurkeztu
ahal izango dira; bi
sari egongo dira

J.Z. > BERGARA

Sariketaren helburua, oporre-
tako edo aisiaidialian ezagutu-
ko lekuaren gomendioak jasotzea
da, beste bidaiaorientat erabil-
garria izan dadin. Zozketan
parte hartzeko, gomendioak
irailaren 30a arte aurkeztu
ahal izango dira. Irabazleen
izenak, beranduenez, urriaren
17an jakinaraziko dira.

SARIKETAREN OINARRIAK

Sariketan parte hartzeko ondo-
rengoa oinarriak hartu behar
dira kontutan: Sariketan
gipuzkoar guztiek parte har-
dezakete, (baita Gipuzkoan lan
egiten edo ikasten duten nera-

> SAN MARTZIAL
**Mahai eta aulkien fidantza batzeko,
uztailaren 8tik 14ra**

San Martzialeko erromeria
eguna pasatu da. Mahai eta
aulkiak alokairuan hartu
zituztenek atzo utzi zituzten
San Martzialeko zelaian.

Mahai eta aulkia entret-
gatzeaz batera 100 euroko
fidantza eman zutela frogatzen
duen ziurtagirian zigu-
lu bat ipini zioten antolatzai-
leek; 100 euroko fidantza hori
erre kuperatu nahi dutenek,
zigilua duen dokumentuare-
kin joan beharko dute kultura
etxera, uztailaren 8a eta
14a bitartean, ondorengo
ordutegian: 19:00etatik
21:30era.

> SAN KRISTOBAL JAIAK
**Meza, txokolate jana
eta erromeria jaiei
hasiera emateko**

Auzoetan jai ugari daude uda
garai honetan. Horrela dator-
ren eguztenean San Kristo-
bal auzoko jaiak hasten dira.

Gaueko hamarretan, ohi-
ko pinu sartzea egingo da,
etxafuego eta kanpai hotsez
lagundurik, eta, gaua amaitze-
ko, auzokoendako saihes-
kia, sagardoa eta txokolatea
jana egongo da. Eguenean,
12:00etan, meza nagusia egon-
go da; ondoren autoen bedeinkapena eta jarraian auzoko
jubilatuendako luntxa. Goiz
guztian musika izango da.
Gauean, berriz, 23:00etan,
Manu Izuteta taldearekin
erromeria goizaldera arte.

beek eta gazteek ere). Bi mai-
la ezarri dira: Alde batetik, 12-
17 urte bitarteko gazteak, eta
bestetik, 18-34 urte bitarteko
gazteak; nahi beste gomendio
aurkez daitezke. Dena den, zoz-
ketari begira, gazte bakoitzak
gehienez bostekin parte hartu
ahal izango du; gomendio
bakoitzeko bi arrazoi eman
beharr dira, labur azalduz;
gomendioaren argazki eta edu-
kiz gero bideo bat ere erantsi-
ko da Zozketan parte hartzeko,
gomendioak irailaren 30a
arte aurkeztu ahal izango dira.
Irabazleen izenak, berandue-
nez, urriaren 17an jakinarazi-
ko dira.

Sariak horrela banatuko
dira: 12-17 urte bitarteko ira-
bazleak 300 euro ikus-entzu-
neko edo antzeko materialean;
18-34 urte bitarteko ira-
bazleak, berriz, 500 euro
oporrallitxoan edo gastatzeko
ikus-entzunezko materialean.

LANAK > BAIMEN ESKAERA

Eroskik eta Udalak hitzarmena sinatu dute supermarketua eraberritzeko

Bi erakundeek sinatutako hitzarmena jende agirian ikusgai egongo da uztailaren 22ra arte; hain zuzen ere, alegazioak aurkezteko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ekaiko Osoko Bilkurak onartu egin zuen Arantzazu kalean dagoen Eroski supermarketua eraberritzeko Eroski S.Koop enpresak aurkeztutako proiektua. Horren harira, Udalak erabaki zuen, handitze lanak egiteko baimena eman aurretik, erabakian zehazten ziren konpromisoak batzen zituen hitzarmena sinatu beharko zutela.

Eroskik eta Udalak sinatutako hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen martitzenean, eta orain, hitzarmena jende agirian jarri dute alegazioak aurkeztu ahal izateko. Hain zuzen ere, uztailaren 22ra arte aurkez daitezke.

Epea bukatu ondoren, udal bulegoetan jaso ziren alegazioak aztertuko dituzte, eta arazorik ez badago supermarketua handitzeko lanak egiteko baimena jasoko du Eroskik.

PRODUKTU BERBERAK

Hitzarmena sinatu aurretik, Udalak sakon aztertu du Eroskik

egindako eskaera. Herriko merkatari txikierekiko sentsibilitatea kontuan hartuta, hainbat bilera egin zituzten Txanda Dendarien Elkarteko kideekin. Horren harira, supermarketu berrian egun saltzen dituzten produktu berberak saltzea eskatu dio Eroskiri. Supermarketuaren azalera ia bikoiztu egingo duten arren –1.200 metro koadrotik 2.160 metro koadrora handituko dute–, Eroskik baldintza onartu du.

Bi erakundeek sinatu duten hitzarmenean beste hainbat baldintza zehazten dituzte. Besteak beste, egungo dendaren atzean dagoen errekatik gutxieneko atzeratzea betetzea eta denda dagoen gunetik gainerako partzetaletara sarbide egokiak bermatzeko beharrezkoak dituen lur sailak eskuratzea.

Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotziek ez dute begi onez ikusten denda handitzeko erabakia. Hala, bozketa abstentu egin ziren, bilera ez zirelako egon eta "merkatari txikien kalerako" erabakia delako.



Arantzazu kalean dagoen supermarketua handituko dute.

MIREIA BIKUÑA

Txandak badauka hitzarmenaren berri

Txanda Dendarien Elkartean badakite Eroskik supermarketua handitu gura duela, Udalarekin hainbat bilera egin dituzte-eta. Horren harira, dendarien elkarteko kideek uste dute denda handitzeak ez dietela "kalterik" eragingo. "Esan digute egun saltzen dituzten produktu berberak salduko dituztela: hau da, ez dute arropak eta etxetresna elektrikorik salduko. Hortaz, baldintza hori betetzen badute, hobeto", esan digute.

Udalak eta Eroskik sinatutako hitzarmenari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago, baina Txandak ez du erabaki alegaziorik aurkeztuko duen. "Hurrengo bilera uztailaren 21ean egingo dugu, eta orduan egingo dugu berba gain honen inguruan", diote.

Atea babesgarria jarriko dute kioskoko eskaileretan

Guraso baten eskaera aintzat hartuta, plazako kioskoan ate babesgarria jartea erabaki zuen Udalak ekainaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarrean. Hain zuzen ere, komun publiko izan zireneta jeisteko dauden eskaileretan.

Kioskoko komun publikoak itxi zirenetik, burdin hesi bana jarri zituzten komunerako ateetan. Baina, zabor eta zikinkeria asko pilatu da han, eta eskaileretatik jaistea oso erreza eta arriskutsua da umeendako. Kiosko inguruan neska-mutiko asko ibiltzen dela kontutan hartuta, eskaileretan atea jarriko dute. Lanak noiz eta nork egingo dituen ez dute erabaki, baina lehenbailehen egitea aurreikusten dute.



MIREIA BIKUÑA

> LEHIAKETA Egitarauko azala aukeratzeko lanak, zapatura arte

San Migel eta Errosario jaietako egitarauaren azalean agertuko den irudia aukeratzeko lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna zapatura da. Horren harira, lanak kultura etxeen edo Turismo Bulegoan utz daitezke. Bi sari banatuko dituzte: 250 euroko lehen saria, eta 125 euroko bigarrena.

Lehiaketan parte harteko interesatuek hiru baldintza bete behar dituzte: Oñatin bizi edo oñatiarra izatea, teknika librea erabiltea eta testuan *Oñatiko Jaixak 2008* testua agertzea.

> DEIALDIA Arkitekto tekniko lanpostuko lehen azterketa, egunean

Udalean hutsik dagoen Arkitekto Tekniko lanpostua betetzeko lehen azterketa egunean egingo dute deialdian onartutako 11 hautagaiek. Hain zuzen, kultura etxeen egingo dute test erako lehen froga.

Oposaketa lehiaketa bidez erabakiko den lanposturako, beste lau azterketa egingo dituzte: bigarrena eta hirugarrena teorikoak, laugarrena praktikoa, eta bosgarrena euskarari dagokiona.

> JAIAK Danborradarako izenematea egubakoitzera arte

Irailaren 28an egingo duten danborrada nagusian dantza-ri edo danbor-jole irten gura dutenek egubakoitzta baino lehen eman behar dute izena, kultura etxeen edo gazteleku. Baldintza bana bete beharko dute parte-hartzaleek: hala, dantzariak 1991. urtean jaiotakoak izan beharko dira, eta danbor-joleak, 18 urtetik gorakoak. Izena eman duten guztiak zozketa egingo da irailaren 1ean, 19:00etan Errekalden.

> IRTEERA Tourreko etapak ikusteko izena, Lizarralden

Irizar, Garmendia eta Odriozola lagunarteeek Tourreko bi etapa ikusteko antolatu duten autobusetarako izena emateko azken eguna gaur da. Hain zuzen ere, Lizarralde Kirolak dendent eman behar da.

Uztailaren 13an eta 14an, Bagneres de Bigorre eta Hutacamen bukatuko diren etapak ikusteko bi autobus irtengo dira Oñatitik.

ESKORIATZA > HIRIGINTZA

Ibarraundi inguruneko obren baldintzen plegua gertu dago

Eskaintzak uztailaren 28ra arte aurkez daitezke udaletxeko erregistro nagusian; egitasmo horren lehenengo faseko aurrekontua 305.609 eurokoa da

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Ibarraundi ingurunea berriz urbanizatzeko proiektuko lehen fasean egin beharreko obrak esleitzeko baldintzen plegua irten zen eguzteneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskaintzak aurkezteko azken eguna hilaren 28a izango da, 13:30ean. Udaleko erregistro nagusian egin beharko da hori, jendaurreko orduetan.

Lañen exekuzio epea lau hilabetekoia izango da eta lizitazioaren aurrekontua, berriz, 305.609,13 eurokoa.



Ibarraundi museoaren ingurunean egingo dira lanak.

GOIENKARIA

DOKUMENTAZIOA

Baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria www.eskoriatza.net webgunean eskuratu ahal izango da. Horrez gain, lehiaketa horren

projektua Aretxabaletako ATAI enpresan aurkituko du interesa duenak. Kontratu honen esleipena jardunbide ireki bidez egingo da. Hala, eskaintzak aurkezteko

epea bukatutakoan alkatearen erabakiaren bidez finkatuko da eguna eta ordua. Aipatutako erabakia udaletxeko iragarki taulan jarriko da.

ESKORIATZA

Udaleku irekietan 172 ume dabiltza

Ohikoak diren ekimenak dituzte: tailerrak, jolasak eta egun bateko irteerak

M.B. > ESKORIATZA

Bailarako gainontzeko herriean bezala, udaleku irekiak hasi dira dagoeneko Eskoriatzan. Aurten, lau eta hamabi urte bitarteko 172 neskatok eta mutikok eman dute izena horietan. Joan den egunean hasi ziren eta datoren uztailaren 23ra arte luztuko dira udalekuak.

Taldeak kurtsoka daude banatuta. Horren harira, ekimen batzuk batera egingo dituztela jakinarazi dute Gazteria zerbitzutik. Esaterako, jolasak edo tailerrak. Horretaz aparte, hainbat irteera egingo dituzte. Gorbeiara eta Gamarrako igerilekuetara joango dira aurten, besteak beste. Nagusienek, gainera, gau bat pasatuko dute Negurixan.

ARETXABAleta > KULTURA

Arkupe kudeatzeko lehiaketa hutsik uztea eta oinarriak aldatzea onartu du Udalak

Orri berriak egitea erabaki zuten eguzten plenoan; balorazio irizpideak dira aldaketa gehien jasan dituztenak

M.B. > ARETXABAleta

Joan den egunean egindako ez ohiko plenoan, Arkupe kultura etxeo kudeaketarako lehiaketa hutsik uztea eta oinarriean hainbat aldaketa egitea onartu zuen Udalak. Aralarreko, EAJ-ko eta EAKO zinegotziek aldeko bota eman zuten; Ezker-Batua-Berdeak tadekoak kontrako eta PSEKO biak abstentu egin ziren.

Inaxio Garro alkateak gogorarazi zuen lehenengo lehiaketan. Jaki elkartea izan zela proiektua aurkeztu zuen balaria; baina, hainbat arazo medio, hutsik geratu zela esleipena. Hala, plegu berriak ateratzea erabaki zutela iragarri zuen. Aldaketak zertan datzan azaldu zituzten plenoan. Balorazio irizpideak izan dira gehien aldatu dituztenak: jarduera egitarauari hamar puntu gutxiago ematea, esperientziak hamar pun-

tik hogei izatera pasatzea, metodologia eta funtzionatzeko erak zein giza baliabideak pisu berdina mantentzea eta Aretxabaletako ezagutza sozio-kulturalak bost puntu gutxiago izatea, besteak beste. Gainera, balorazio irizpide berria onartu dute, prezioari dagokionez.

ETEKINAK ETA KOSTUAK

Kultura etxeo jarduerek emanen dituzten etekinak eta kostuak ere esleipena irabazten duenaren kargu utziko dira. Aurreko plenuetan hori ez zen oso argi uzten eta beraz, hobeto zehaztu da.



Irudian, Arkupe kultura etxeo fatxada nagusia.

ARETXABAleta-ESKORIATZA > GAZTERIA

Udaeroko ekimenekin 30 bat gaztek gozatzen dihardute

Bihar, martitzena, surf ikastaroa izango dute; eta eguztenean, Landara joango dira

M.B. > ARETXABAleta-ESKORIATZA
Pozik daude Aretxabaleta eta Eskoriatzako Gazteria zerbitzuak, aurtengo Udaero programak izaten ari duen harrerarekin. Hamabi urtetik gorako 30 gazte inguru dihardute horretan. "Aurreko urteko kopuruan antzekoa da aurtengoa", azaldu du Gazteria teknikari Maider Etxanizek.

Joan den martitzenean eman zioten hasiera egitarauari. Dagoeneko hiru ekintza egin dituzte: egun pasa kostaldera, Gamarra irteera eta herri olinpiadak. Aste bukaeran jai izan ostean, bihar, martitzena, jarraituko dute programarekin. Surf egiten ikasiko dute Zarautzko hondartzan. 09:00etan egin dute hitzordua Eskoriatzako autobus geltoikian; handik Aretxabaletara joko dute, hango gazteak jasotzeko. 09:15ean hartuko dituzte geltoikian. Gazteria zerbitzutik gogorarazi dute bakoitzak bere bazarria eraman behar duela.

LANDARA ETA AKELARRE GAUA

Eguaztenean, hilak 9, Landara joateko geratu dira, 11:00etan Aretxabaletako geltokian. Kasu horretan ere norbera arduratu behar da bazkariaz. Eguna arratsaldean, berriz, akelarre gaua egingo dute. Herri bietako gazteak bilduko dira Eskoriatzako gatzteleku, afaria egiteko.

Programa behar bezala amaitzeko, hiru eguneko irteera egingo dute 30 gaztek. Primerako eguna pasako dituzte Urdaibain, kanpinean. Ekintza bereziak egiteko aukera izango dute irteera horretan.

IRIARTE

Umeen denda
•
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta



Neska-mutikoek begiraleekin jolasak, eskulanak eta irteerak egiten dituzte besteak beste.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ANTZUOLA > UDALEKUAK

Udaleku irekietan 115 ume dabiltza aurten

Gaur, astelehena, San Fermin Eguna ospatuko dute eta irteerak egingo dituzte uztailaren 10ean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Gaur, astelehena, San Fermin Eguna, ez da Iruñean bakarrik ospatuko. Antzuolako udaleku irekietako neska-mutikoek ere Nafarroako ohiturak ekarrako dituzte gurera. Txapligoak, pregoia, abestiak, zezenak eta buruhandiak ere izango dira etxe-ko txikiendako.

San Ferminak izango dira gaur udalekutako ardatz, baina egunotan askotariko ekintzak egiten dihardute umeek begiraleekin. 6 eta 11 urte bitarteko 115 neska-mutikok eman dute izena

aurten udaleku irekietarako. "Inoizko parte hartzte altuena" izan dela esan digu kultura teknikariak eta sumatzen dela "azken urteotan populazioak gora egin duela Antzuolan". Ume horiekin guztielkin 11 begirale dabiltza lanean.

Goizean egiten dituzte ekintzak, eguraldiak aukera eskaintzen badu, kanpoko jarduerak egiteko aprobetxatzen dute. Askotariko jolasetan jarduten dute, baita eskulanak egiten edo jaiekako egunerako ikuskizuna geratzen ere besteak beste.

IRTEERAK

Bestalde, udaleku irekietan txangoak ere egiten dituzte, herrian bertan batzuk eta Antzuolatik kanpora besteak. Antzuolan Galardi baseria, San Martzial eta Antiguako errota bisitatzen dihardute taldeka, txandaka; eta toki bakoitzaren gaineko azalpenak adi-adi entzuten.

Herritik kanpora, berriz, uztailaren 10ean joango dira denak. Txikienak Oñatiako Arrikrutzeko kobetara eta Zerainera handiak.

Hortaz, herriko jaiak iritsi bitartean izango dute aukera Antzuolako umeek oporretan, goizez, herrian bertan, aisialdiaz gozatzeko.

ELGETA > HERRI ESKOLA

Auzolanean margotuko dituzte gurasoek Herri Eskolako bi gela uztailean barrena

Eguenean batzarra egingo dute udaletxeen boluntarioekin margotze lanak noiz egin erabakitzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Herri Eskola berritzeko beharraz jabetuta, hainbat konponketa lan egingo dituzte pixkanaka. Uztailean hasiko dira konponketa lan horietako batzuk egiten. Besteak beste, eskolako ateak larrialdietarako egokituko dituz-

te, eskola aldameneko jolas leku-ko hesitura ere konpondu egindo dute eta baita eskolako ataria txukundu ere.

Herri Eskola pixkanaka berri-tzeko lanak profesionalek egingo dituzte. Baina Udaleko Hezkuntza Batzordeak erabaki du hainbat lan auzolanean egitea. Besteak beste eskolako bi gela gurasoek margotuko dituzte.

BILERA EGUNEEAN

Margotze lanak noiz eta nola egingo dituzten denen artean era-bakitzeko, lanerako gertu dauden boluntarioekin batzarra egingo dute aurrez. Bilera, uztailaren 10ean, egunean, izango da uda-

letxeen. Herritarrei, batik bat Herri Eskolan umeak dituzten gurasoek, dei egiten diete batzarrera joateko eta ondoren, auzolanean jarduteko, denen beharra izango delako.

Oraindik ez dakite zein gela margotuko dituzten, erabakia eskolako irakasleen esku dago eta hauek jakinaraziko diete zein ikasgela txukunduko duten.

HAURRESKOLA

Bestalde, jadanik esleitu dituzte Torrealdeako etxeetan egongo den haurreskola berria egiteko lanak. Amaral eraikuntza enpre-sa arduratuko da, hain zuzen ere obra horietaz.

ARAMAIO > KURTZETA-GAIN PLATER TIROKETA ELKARTEA

Zapatuan Amurriaren desafioaren bigarren buelta egingo dute

Aramaioarrek eta Amurriarrek hiru urtetan egin dute desafioa. Ekainaren 21ean Aramaion egin zuten lehenengo buelta eta parra gelditu ziren.

ARRITXU BARRUSO > ARRITXU

100 tirotik 93 asmatu zituzten pasa zen hilaren 21ean egindako desafioaren lehenengo proban, bai Aramaioarrek eta baita Amurriarrek ere. Beraz, hurrengo bueltan erabakiko da aurtengo desafioaren irabazlea nor den.

Bi herri horien arteko hirugarren desafioa da aurtengoa. Lehenengo urtean Amurriarrek izan ziren garaile eta bigarrenean Aramaioko Kurtzeta-Gain elkartekoak. Azken urteko emaitza errepiatzeko asmoa daukate aramaioarrek

aurten. Baino esan bezala, datorren zapatuan, Amurriaren egingo den tiroketara arte itxaron beharko da hori jakiteko.

Zapatuan 16:00etan hasiko da tiroketa. Baino izenematea zabalik egongo da 18:00ak arte. Irabazten duenak irabazita ere, guztiekin ospatuko dute emaitza. Afaria egingo dute zapatuan bertan Amurrioko jatetxe batean. Edonor joan daiteke afarira. Kurtzeta-Gain elkartekoekin jarri beharko dira harremanetan horretarako. Bazkide ez direnek 32 euro ordaindu beharko dituzte.



Kutzeta-Gain elkartekoak Espainiako Txapelketan.

I. ULLIBARRIARANA

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

30 ume ibiliko dira gaurtik udalekuetan

Gamarako igerilekura joan gura dute astean; zapatuan egun pasa egingo dute Araban 46 gurasok eta umek, eta zaldi gainean ibiliko dira

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 7, hasi eta 18ra bitartean ibiliko dira Gatzagako neska-mutikoak udalekuetan. 30 ume eta gaztetxok eman du izena, eta Aretxabaletako hiru begirale izango dituzte arduradun. Gurel guraso elkar-teak antolatutako udalekuak dira, eta umeen behar eta gustuak hartu dituzte kontuan hamar eguneko egitaraua antolatzerakoan. Hala, aurreko urteetan egindako ekintzak ez erre-pikatzen saiatuko dira, eta esku-lan eta jolas berriak sartuko dituzte, zientziari eskainitako eguna esaterako.

Baina guztia ez da berria izango, izan ere, irteerak aurrekoetan legez egingo dituzte. Aste honetan bertan Gamarako igerilekura joango dira eguraldia lagun badute, eta zapatuan Araban egingo dute egun pasa: lehenengo Egino inguru-ruan eta arratsaldean Bikuña-ko zalditegian. Gurasoekin joango dira umeak, 46 guztira.

Hurrengo astelehenean, osteria, Ariznabarriko rokodromo (Gasteiz) joateko asmoa dute, eta hilaren 15etik 16ra bitarteko gaua Gaztainuzketa-ko mendi etxeetan pasatuko dute ohiturari jarraituz.

Kirola




> **ZIKLISMOA**
Azpiru Ugarte
taldeko Pablo Hernan
nagusi Gatzagako
proban > 19



> **ARETO FUTBOLA**
la 100 entrenatzaile
Eskoriatzako areto
futbolari buruzko
topaketan > 21

> ELKARRIZKETA

Aitor Eraña
bergararrak parte
hartuko du
abuztuan
beteranoen
mailako Europako
atletismo
txapelketan,
Eslovenian.
Maratoi proban
lehiatuko da
bergararra > 22



Argazkian, Mikel Urrutikoetxea pilota astizten aurreko koadroetan, atzerako Ugaitz Renobales begira duela. Frontisean dauden zaleek adi jarraitzen dute jokaldia.

JOSETXO ARANTZABAL

Urrutikoetxeak eta Galartzak irabazi zituzten txapelak... eta eskopetak

KADETEAK Kerman
Galarta
galdakaoarrak 22-18
menderatu zuen
Xabier Urbieta

NAGUSIAK
Renobalesek 17-22
galdu zuen
Urrutikoetxearen aurka

MIREIA BIKUÑA > ELGETA
Urdin kolorea nagusitu zen egubakoitz gaeuan jokatutako Elgetako Lau terdiko Txapelketako finaletan. Izan ere, txapeldun berriek gerriko urdinarekin jokatu zuten; hain zuzen ere, Kerman Galartzak kadete mailan, eta Mikel Urrutikoetxeak, 23 urtez azpikoen mailan. Hala, zaleen txalo zaparradarekin jaso zituzen sari nagu-

siak; besteari, txapelak, eskopetak eta diru-sariak. Sari banaketa ekitaldian egon ziren Pilota Federazioko eta Euskal Telebista-kor ordezkarriak, Elgetako alkate Oxel Erostarbe eta kirol zinegotzi Rebeka Ubera, esaterako.

Elgetako pilotalekua lepo beten zen txapelketako finalak ikusteko, eta lau finalisten jarraitzaleen animuek harmailak girotu zituzten. Urrutikoetxearen eta Renobalesen jarraitzaleak izan ziren zaratatsuenak.

LEHEN HAMAR TANTOAK, GORRIAK
Oso interesgarriak izan ziren egubakoitz gaeuan jokatutako bi finalak. Lehen-lehenik kadete mailako finala jokatu zuten, Xabier Urbieta eta Kerman Galartzak. Lehen sakea Urbieta egin zuen, eta berehala jarri zen aurretik markagailuan, hasierako hamar tantoak jarraian egin zituen-eta. Haietatik, lau tanto sakez egin zituen. Urbieta egindako pasa bati esker egin zuen lehen tantoa Galartzak, eta handik aurrera,

markagailuari buelta eman zion poliki-poliki. 13-3 aurreratu zen Urbieta, baina partiduko berdin-keta bakarra lortu arte (17-17), Kerman Galartzak 14-4ko partziala egin zion Urbiatarik.

Pilota aldatu zuen Galdakako pilotariak, eta 21. tantoa jarri zuen markagailuan. Dejada bati esker egin zuen Urbieta 18. tantoa, baina ordurako nekatuta zego-

ela ikusi zuten pilotaleku zeuden zaleek. Azkeneko tantoa urdin kolorekoa izan zen.

ABANTAILA, HASIERATIK
Txapela janzteko hautagai nagusirik ez zegoela irten ziren kan-txara Mikel Urrutikoetxea eta Ugaitz Renobales. Nagusien lehia kadete mailakoaren antzera hasi zen: Urrutikoetxea 11-1 aurrera-

tu zen markagailuan. Harmailan zeuden lagunen animuak jaso arren, Renobalesi kosta egiten zitzaien tantoak egitea. Dena den, lau tantora murritz zuen aldea, eta 14-10 jarri zuen markagailuan. Tarte horretan Urrutikoetxea nahiko urduri egon zen. "Hasieran hartutako abantailak lasaitu egin nau, baina gero joko nahastu egin da, eta Ugaitzek halako txapelketan duen esperientziarekin, partiduan sartu da", esan zigun txapeldunak amaieran.

Bi pareta baten bidez, 17-15 jarri zuen markagailua Renobalesek, baina pasa batekin, sakez egindako tantoarekin eta dejada batekin berriro zabaldzu zuen tarte Urrutikoetxeak (20-15). Garai-penak ihes egiteko ziola ikusita, Ugaitz Renobalesen jarraitzaleak gogotik hasi ziren animatzen. Nor-gehiagoka bukatu aurretik, beste bi tanto egiteko gai izan zen Ale-giako pilotaria. Baina, txapela janzteko eskubidea ematen zion azken dejada, Mikel Urrutikoetxeak egin zuen.



Bi finaletako jokalariaiak sariak jaso ondoren.

J. A.

FUTBOLA > JON URTZELAI BESTE BI URTEZ EIBARREN

Jon Urtzelai: oñatiar bat Eibarreko defentsan agintzen

"Eibarren oso gustura nago, etxean, eta poztekoa da jarraitzea. Gure helburua datorren urtean ere mailari eustea izango da"

Mandiolaren hamaikakoan finkoa izan da Urtzelai. Entrenatzaile berria izango du uztailetik: Sestao taldetik datorren Carlos Pouso

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zapatuan, Zurichen Joseba anaia-ren ezkontza ospatzeko ari zela, hitz egin genuen Jon Urtzelairekin. Oñatiarrak Eibar futbol taldearekin kontrataua berritu du. Beste bi denboralditarako hitzartu da eibartarrekin. Bigarren denboraldi horretan partidu kopuruaren arabera, hirugarren denboraldi bat egiteko aukera jasotzen da kontratuaren.

Anaiaaren ezkontzagatik bakanrik ez; Eibarren jarraitzearen pozik zen Urtzelai; "Eibarren oso gustura nago, etxean, eta pozteko da han jarraitzea. Ondo eza-gutzen dudan taldea da eta ez da egon arazorik egon zuzendaritzakoekin ados jartzeko". Jon Urtzelai 1977ko martxoaren 1ean jaio zen. Kontratuaren jasotako hiru denboraldiak beteko balitu, 34 urte izango lituzke orduan. "Ez dakit Eibarren erretiratuko nai-zen edo ez. Oraingo hobe da hurrengo denboraldian zentratzea. Aurten oso denboraldi ona egin dugu, nahiz eta liga bukaearan gauzak zerbaitek konplikatu zaizkigun. Datorren denboraldian ere mailari eustea izan beharko da gure lehenbiziko helburua". Eibartarrak uztailaren 24an itzuliko dira entrenamenduetara. Orain oporretan dabil oñatiarra: astebete eman du Murtzian eta iazko urtarrilean itzuli zuen Eibarrera, Vecindariotik.

ENTRENATZAILE BERRIA

Eibarrek entrenatzaile berria izango du aurten: Sestao taldetik datorren Carlos Pouso. "Ez dut ezagutzen, baina ilusio handiarekin datorrela eta Eibarko mode-loa atsegina duela esan du. Ea gauzak ondo irteten diren...", diosku Urtzelaiak.

Amaitu berri den denboraldian Mandiolaren hamaikakoan finkoa izan da Urtzelai. 32 partidutan jokatu du hasieratik, guztira 2.784 minutu zenbatuz. Aurretik Barakaldon, Murtzian eta Vecindarion ibilitakoa da. 2002tik 2004ra Eibarren jokatu zuen eta iazko urtarrilean itzuli zuen Eibarrera, Vecindariotik.



Jon Urtzelai ia partidu guztiak jokatu ditu aurten.

ARTXIBOA

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

B E H E R A P E N A K

A S T E L E H E N G O I Z E A N Z A B A L I K

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



Eusko jaurlaritzak baimendutako publizitatea. 080209 expediente zk.-duna.

Kutxan telekomunikazioetako inbertsioa beti gorantz doa.

Telekos gordailu berria. Igo zaitez.

Inberti ezazu telekomunikazioen sektoreko Europako 3 empresa garrantzitsuenetan (Telefónica, France Telecom eta Deutsche Telekom). Inbertsioak **zure kapitalaren %100 bermatu eta %2,5eko gutxieneko errentagarritasun segurua** (%1,660ko UTB) eskainiko ditzu. Ez itxaron gehiago eta kontrata ezazu abuztuaren 8a baino lehen. Zure inbertsioa **%12raino igo daiteke** (%7,848ko UTB).


zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

MILAR
ELKORO

Udara



LCD 32"
Ambilight
TV LCD 32" PHILIPS
32FPL 7613
Eresoluzioa: 1.366 x 768 p
Kontrastea: 30.000:1
Disdira: 500 cd/m²
USB lotura

999€
ORDAINDU 11 HILABETETAN
INTERESIK GABE*

Irratidun koltxoia
OPARI



5.800 Btu

AIRE EGOKITU ERAMANGARRIA
BALAY 3XM 400B
Desezadura: 31 litro/reguneko
Soinu maila: 46 dB(A)
Errefrigerazioa: 2 potentzia maila
Aireztapena: 2 potentzia maila

269€

Irratidun koltxoia
OPARI



10 Megapixel
LCD pantaila 2,5"
ARGAZKI KAMERA DIGITALA
PANASONIC DMC FX35
Zoom optikoa 4x /digital 4x
Irudi finkatzale optikoa
Barne memoria 50 Mb.
Objetivo angeluzabala
Leica optikarekin

329€

Irratidun koltxoia
OPARI

*Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Lehenengo kuotarekin 10€ ko gastu igorria.

MILAR
ELKORO

Milar Elkoro Olarte 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

Elgeta eta Aramaiko
jaiak 2008 GOITB-n

SAIO BEREZIAK

Eguaztenean, uztailak 9an, 21:47ean
Eguenean, uztailak 10an, 14:15ean
Egubakoitzean, uztailak 11an, 18:15ean



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TXIRRINDULARITZA > DORLETAKO AMA SARIA

Azpiru Ugarte taldeko hiru txirrindulari batera heldu ziren Gatzagako helmugara

Pablo Hernanek jantzi zuen txapela Dorletako Ama txirrindulari lasterketako 30. edizioan

Talde onenaren saria Azpiru Ugartek eroan zuen eta mendiko saria talde bereko Fabricio Ferrarik

MIREIA BIKUÑA > GATZAGA
Azpiru Ugarte taldeko txirrindulariak izan ziren protagonista atzo, Gatzagako proban. Izan ere, eskutik helduta iritsi ziren helmugara, Pablo Hernan, Fabricio Ferrari eta Alejandro Tamayo, 2:47:02ko denbora eginez. Txapela Pablo Hernan argentinarrak jantzi zuen. "Helmugara batera iritsi garen taldekideon artean ni nintzen garaipenik ez zuen bakkera, eta azken metroan aurreratu egin naiz txapela eskuratzeko", esan zigun saria jaso ondoren.

Sailkapen orokorrean, Cafes Baque taldeko Kepa Varela berargarra izan zen onena debagoendarren artean: 19. tokian sailkatu zen 2:49:08ko denborarekin. Bruesa taldeko Hilario Corderok eta Kepa Otxoak, eta Bidehan taldeko Gurutz Larreak ere proba bukatzea lortu zuten. Izan ere, irteera hartu zuten 119 ziklistatik 73 heldu ziren Gatzagara.

IHEBALDI SAIAKERAK
Euri langarrarekin hartu zuten irteera 23 urtez azpiko eta elite mailako 119 txirrindularik.

Aurretik, Debagoieneko errepideetan egiteko 119 kilometroko ibilbidea zuten. Euria egiten zuen arren lasterketa azkarra izan zen atzokoa, hasieratik ihesaldi saiakerak egon ziren-eta. Gatzagatik Bergara aldera hartu zuten, eta 13. kilometroan erorikoa egon zen tropelaren hasieran. Ondorioz, Bidelan-Kirolgi taldeko Alain Gonzalez Debagoieneko Ospitalera eroan zuten. Zauri larririk ez zuela ikusirik, berehalu hartu zuen sendagileek emandako alta.

Bitartean, tropelean lehen ihesaldi saiakerak egon ziren. 30. kilometroan zilklista talde batzuk ahalegina egin zuen, eta 35. kilometroan beste txirrindulari batzuk; baina, biak ala biak, ezezean geratu ziren.

Tropelak Gatzagako mendaña igo zuen bigarren aldian, 83. kilometroan, sortu zen bukaera arte mantendu zen ihesaldia; hain zuzen, Hernanek, Tamayok eta Ferrarik aurrera egin zuten. "Taldea sortu dugunean erreleboka hasi gara, ihesaldia amaieraraino mantendu guran, eta lor-

sailkapenak

LEHENENGOAK

| | |
|--------------------------|---------|
| 1. Pablo Hernan | 2:47:02 |
| 2. Fabricio Ferrari | 2:47:02 |
| 3. Alejandro Tamayo | 2:47:02 |
| 4. Cristian Castro | 2:47:15 |
| 5. Gorka Amuriza | 2:47:21 |
| 6. Guillermo Lana | 2:47:32 |
| 7. Ugaitz Artola | 2:47:32 |
| 8. Martin Iraizoz | 2:47:32 |
| 9. Garikoitz Zabaleta | 2:47:38 |
| 10. Mikel Landa | 2:47:38 |
| 11. Juan Luis Negueruela | 2:47:38 |
| 12. Egoitz Murgoitio | 2:47:52 |
| 13. Miguel Otxoa | 2:47:52 |
| 14. Asier Fernandez | 2:47:52 |



Helmugara iristen, ezkerretik eskuinera, Ferrari, Hernan eta Tamayo.

M.B.



JOSETXO ARANTZABAL

Lagun asko, Aloñak antolatutako Garagardo Ferian

Eguenean zabaldu zuten Aloñak antolatutako Garagardo Feriako karpa, eta aste bukaeran lagun asko ibili da. Atzo arratsalderako bukatu egin ziren txerri-ukondoak eta oilasko izterrak. Bestalde, garagardoarekin ez dute arazorik izan. Zapatuan lagun asko egin zen plazako karpan, eta Kaixo taldeak jarritako musikarekin gozatzeko aukera izan zuten. Gainera, mus txapelketa Markinez aita-seemeek irabazi zuten. Feriako akats bakarra, egubakoitzean Txuletons taldeak eman beharreko kontzertuan egin zen; arazo batzuk tarteko bertan behera geratu zen.

TXIRRINDULARITZA > IRTEERA

Oñatiko peñekin tourrera joateko izena emateko azken eguna gaur da

Oñatiko Lizarralde kirolak dendaran eman behar da izena, eta 125 euro aurreratu behar dira; 12 urtetik beherakoek, 70 euro

M.B. > OÑATI

Markel Irizar, Aitor Garmendia eta Jon Odriozola lagunartek Tourreko bi etapa ikusteko autobusak antolatu dituzte. Hain zuzen, zapatuan Bagneres de Bigoreta eta, domekan, Hautacamendu bukatuko diren etapak. Horren harira, gaur da izena emateko azken eguna. Horretarako, Lizarralde kirolak dendaran joan behar da. Helduek 125 euro aurreratu behar dituzte, eta 12 urtetik behera-

koek 70 euro. Bi autobusak zapatuan irtengo dira, 14:30ean, Olarra auzotik.

PORRAK

Bestalde, Frantziako Tourraren gaineko porrak egin dituzte hainbat debagoendarrek, bestek beste, Arrasateko Monte tabernan eta Bergarako Loka-tza txirrindulari taldean.

Lokatza taldeak azken apustuak jaso zituen atzo San Martzialgo erromerian. Eguneroko sailkapenak eta porraren jarrai-pena goiena.net atariko blogean jarrai daiteke; hain zuzen, www.goiena.net/blogak/lokatzza helbidean.

Bestalde, urtero lez Monte tabernak antolatzen duen porraren lagun askok izena eman du; 1.000 lagunen apustuak jaso dituzte aste bukaeran hasi den Tourrerako.

ARETO FUTBOLA > 24 ORDUKO TXAPELKETAK

Arenkes de Cucu eta Cipris taldeak nagusitu ziren Arrasaten eta Bergaran

Egubakoitzean hasitako 24 orduko areto futbol txapelketetan, 20 Paca eta Ugarrixa taldeak menderatu zituzten, hurrenez hurren

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Egubakoitz arratsaldean hasi zuten Bergarako 24 orduko areto futbol txapelketa, Bergara Futbol taldeko delegatu izandako Lutxi Herzogen omenezko minutu bateko isilunearekin; eta zapatu eguerdian Arrasatekoia. Bietan jai giroa izan zen nagusi, eta txapeldunak izan ziren Arenkes de Cucu Arrasaten, eta Cipris Bergaran. Hain zuzen ere, 20 Paca eta Ugarrixa taldeek menderatu zituzten finaletan.

500 LAGUN FINALA IKUSTEN
Atzo San Martzialgo erromeria ospatzen zutela-eta, Bergarako areto futbol txapelketako finala zapatuan, 20:45ean jokatu zuten Eskoriatzako Cipris eta Bergarako Ugarrixa taldeek. Markagailuan gora-behera asko egon ondoen, eskoriatzarrak merezimendu osoz nagusitu ziren 7-5, eta txapeldunaren garaikurra jaso zuten. "Partidu guztietan maila oso ona egon da, eta finalean ere bai. Eskoriatzako taldeak halako txapelketetan esperientzia duela erakutsi du, eta merezimendu osoz irabazi du", esan zigun txapelketako antolatzaile Jose Luis Beitiak. Unai Colinaisek (Ugarrixa) jaso zuen jokalari onenaren saria, eta Mikel Erañak (A

Ze Flaxa) jokalari beteranoaren. Finala ilunkaran jokatu zuten arren, Udal Pilotaleku lepo bete zen norgehiagoka ikusteko. "500 bat lagun egon dira finalean. Baina partidu guztietan egundoko giroa egon da harmailetan, bai ta goizaldean jokatutako partiduetan", esan zigun Beitiak.

Guztira, 20 taldek parte hartu zuten txapelketan, eta aipamen berezia merezi dute BTLS taldeko neskek. "Hirugarren partidura aitezain barik etorri dira, eta ezin izan dute bigarren fase rako sailkatu".

TALDE MISTOAK

Atzo eguerdian bukatu zen Ino Galparsoro alkatearen askatasuna exijitzeko asmoz jokatutako txapelketa. Arenkes de Cucu taldekoak 3-1 nagusitu ziren 20 Paca taldearen aurka. Irabazleek garaikurra eta afaria jaso zuten; txapeldunordeek aldziz, garaikurra eta txuleta sorta. Sariak banatzenten egon ziren Oihane Aranburu alkatea jardunean eta Aitor Lopez Rekarte futbol jokalaria. Bestalde, aipamen berezia jaso zuten lau talde mistoek; hain zuzen, euskal produktuen sorta bana jaso zuten.

Arrasateko txapelketan ere giro ona nagusitu zen. "Taldeen artean lehia gogorrak ikusi ditugu, baina ez da inolako arazorik egon. Giro bikaina egon da norgehiagoka guztietan", esan ziguten antolatzaile taldekoek. Guztira, 27 talde lehiatu dira bi fasetan.

Antolatzaile taldekoek eskerrik eman nahi dizkiete antolaketan lagundu duten guztiei, eta parte-hartzaileei. Bestalde, Ino Galparsoro alkateak eskerrak helarazi zizkien parte-hartzaileei senitarteko bidez.



Cipris eta Ugarrixa taldeek jokatu zuten finala Bergaran. Cipris eskoriatzarrak nagusitu ziren, 7-5.

ENEKO AZKARATE



Uarkapeko txapelketan jokalari txikienak ikusteko aukera izan zuten; harrobia sendo datorrenaren seinale.

JOSETXO ARANTZABAL



Argazkian, Pic de Neouvielle.

ALOÑA MENDI

MENDIA > UZTAILEAN

Hainbat irteera Besaiderekin eta Aloña Mendirekin

Egun bat, bi eta hiru eguneko irteerak antolatu dituzte Arrasateko eta Oñatiako mendi taldeek

M.B. > BERGARA
Arrasateko Besaide eta Oñatioko Aloña Mendi mendi taldeek hainbat irteera antolatu dituzte datozten egunetarako. Hain zuzen, uztaileko aste bukaeratan egingo dituzte. Horren harira, irteera guztien informazioa ikusgai dago mendi taldeen web gunee-

tan; hain justu ere, www.besaide.org eta www.aloña-mendi.com helbideetan.

GLAZIARRERA

Uztaileko irteerarik luzeena Aloña Mendik antolatu du uztailarren 25, 26 eta 27rako. Hain zuzen ere, Neouvielleko erreserbara

egingo dute irteera. Hiru eguneko irteeran, besteak beste, Col de Madamete (2.500 metro), Pic de Neouvielle (3.081 metro) eta Col de Bastanet (2.500 metro) igotzeko aukera egongo da. Azken hori izango da, duda barik, ibilbiderik gogorrena, 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela ditu-eta. Izena Aloña Mendi tabernan eman behar da.

ESKALATZERA

Besaide taldeak aldziz, egun bateko eta aste bukaerako irteerak egingo ditu. Lehena, zapatuan egingo dute, Pagoeta eta Zarautz aldera, eta izena emateko azken eguna bihar da. Bestalde, gaur da azkeneko eguna, escalada egiteko, uztailaren 19an eta 20an egingo duten irteeran parte hartzeko. Hain zuzen, Salvatierra de Escoria egingo dute irteera. Izenak Besaide eman behar dira.

ATLETISMOA > GIPUZKOAKO CHALLENGE-A

Gipuzkoako atleta onenak dator Mojategira egiaztenean

Gipuzkoako Challenge-aren proba bat jokatuko dute Arrasaten; azken proba Donostian izango da datorren astean, uztailaren 16an

Jonathan Perez, Maialen Axpe eta Remi Diosdado arrasatearrak Gipuzkoako beste atletekin batera lehiatuko dira 18:00etan

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Gipuzkoako Challenge-ko laugarren proba jokatuko dute egaztenean Mojategin, Arrasaten, eta probintziako atleta onenak etorriko dira elkarren aurka lehiatzen. Distantzia ezberdinako lasterketak, pertika eta pisu jaurtiketak eta hesien jauzietako probak egongo dira; euren markak hobetzea izango da kirolarien helburu nagusia.

NAROA AGIRRE ERE BAI
Arrasaten egingo duten Challenge-aren proba honetan ibarreko atleta askok hartuko dute parte. "Arrasateko Remi Diosdadoak, adibidez, 100 metroko lasterketan hartuko du parte. Maialen Axpe eta nik, berriz, pertika jaurtiketako probak egingo ditugu", azaldu du Jonathan Perez atleta arrasatearrak. "Probak kategoria guztietan jokatuko dira eta ibarreko ume eta gaztetxo askok ere hartuko dute parte", jarraitu du.

Naroa Agirre puntako atleta ere badator Mojategira. "Esan digu badatorrela proba ikustera eta salto ere egingo duela, ziurrenik", aurreratu du Perezek.

MARKA ONENAK EGITERA
Jonathan Perezek azaldu bezala, lehiakortasun handia egongo da Mojategiko atletismo proba honetan. "Uztailaren bukaeran Espainiako atletismo txapelketa jokatuko dute Tenerifen eta kirolari asko hara begira daude. Txapelketa horretarako, baina, ezinbestekoa da marka, denbora, jakin bat edukitzea, eta askok ez dute oraindik lortu. Beraz, Arrasateko proba honetan Espainiako txapelketara joateko txartela eskuratu dezakete askok, eta lehia handia egongo da".

ESPAINIAGO TXAPELKETAN
Jonathan Perez lasai dago alde horretatik, berak baduelako txapelketara joateko balio duen mar-

ka eta Tenerifen egongo delako uztailaren 25etik 27ra. Lehen mai-lako atleten Espainiako txapelketa izango da hori. Urrian kade-teen mailakoa jokatuko dute eta han izango dira, besteak beste, Maialen Axpe, Lore Mar (egungo Euskadiko marka du) eta Eukene Dorronsoro debagoiendarrak.

MOJATEGIKO EGITARAU
Pertika jaurtiketa izango da Mojategin egingo duten lehen kirola, 18:00etan. "Proba horren berezitasuna izango da neskak eta mutilak elkarrekin lehiatuko garela", dio Jonathan Perezek. 19:00etan hasiko dira beste denak: luzera jauziak, 100 eta 400 metroko lasterketak, 800 eta 600 gramoko pisu jaurtiketak eta 110 eta 100 metroko hesi jauziak. Challengeko probetan egindako denborekin bataz bestekoa ateratzen dute eta lehen zortzi onenak sartzen dira irabazleen zerrendan.



Pekinera joan aurretik Arrasaten izango da Naroa Agirre.

FELIX SANCHEZ

ARETO FUTBOLA > X. KONGRESUA

Areto futboleko ia 100 entrenatzaile Eskoriatzan

Defentsa teknikak, partiduaren estrategiak edo taldeak nola eratu azaldu dituzte, besteak beste, azalpen praktiko eta guzti

O.E. > BERGARA
Espainiako areto futboleko entrenatzaileen elkarteak, ANEFS, X. kongresua egin du aste bukaera honetan Eskoriatzan. Bertan elkartu dira mundu osoko ia 100 entrenatzaile.

MUNDUKO ONENA
Kongresuaren hasiera ekitaldia Ibarraundi museoan egin dute baina hitzaldiak eta mahainguruak, kiroldegian. Areto futboleko munduko entrenatzaile eta prestatzaile onenak izan dira hizlariak. Zapatuko lehen hitzaldia, esaterako, munduko entrenatzale onenak, Jesus Candelas madrildarrak, eman zuen; defentsa teknikak nola hobetu azaldu zituen. Izan ere, hizlari bakoitzak gai konkretu bat hartu du, denak

areto futbolarekin erlazionatutakoak, noski. Azkar Lugo taldeko Bruno Garcia, talde bat nola egin azaldu zuen eta Errumanianko 21 urtez azpiko hautatzaile Joan Cosac-ek, jokoaren estrategia izan zuen hizpide: kornerak, faltak... Hitzaldi hauek entzuten, berriz, Iran, Portugal, Italia edo Brasileitik etorritako areto futboleko entrenatzaileak egin dira. Ia 100 entrenatzailek eman zuten izena kongresuan parte hartzea. "Ikarragarria izan da. Oso maila altuko entrenatzaile eta adituak etorri dira Eskoriatzara, ez bakarrik kirol mailan, baita pertsonalean ere. Denak agertu dira gertu hona etortzeko. Kongresua ez da sekula hain herri txikian antolatu, Zaragozan, Malagan edo Elxen egin dituzte, eta



Eskoriatzako kiroldegian egin dituzte kongresuko hitzaldiak eta mahai ingurua.

JOSETXO ARANTZABAL

hori oso garrantzitsua da. Udalak asko lagundu digu. Eskerrik asko denoi", dio Narciso Pavok, kongresuko koordinatzaileak.

PRAKTIKAK ERE BAI
Hitzaldiek erakustaldi praktikoak izan dituzte. Eskoriatzako areto futboleko gazte mailako joka-

lariek egin dituzte. Bi partidu ere jokatu ziren atzo: euskal jokalariak Eskoriatzaren aurka eta Ohorezko Mailakoen artekoa.

Aitor Eraña > Korrikalaria

"Esloveniako maratoian nire adin tarteko Gipuzkoako errekorra lortu nahi nuke"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Berrogei urte egin zituenean egin zuen lehenbiziko maratoia, 1993an, Donostiako Munduko Kopan. Ordutik makina bat probatzen hartu du parte eta abuztuaren 3an hitzordu garrantzitsua dauka Eslovenian, Ljubljana, Europako beteranoen mailako txapelketan. Bere 17. maratoia izango da hangoa.

Zein asmorekin zoaz Esloveniara?

Ikusi behar. 55-59 urte bitarteko kategorian hartuko dut parte eta adin tarte horretan Gipuzkoako errekorra lortzea ondo lego. Horretarako 3 ordu eta 4 minutuko marka egin beharko nuke. Ibilbidea nolakoa den ere ez dakit eta horrek ere zerikusia izango du... Laua bada, hobe niretako. Edozein modutan, lasterketa egunera arte ez dago jakiterik gorputzak nola erantzungo dizun.

Zeintzuk dira zure marka onenak?

Maratoian, 2 ordu eta 41 minutuko marka eginda daukat: eta erdi maratoian 1:15. Aurtengo maiatzean 1:23:45 egin nuen Donostiako maratoi erdian, nire adin tartean Gipuzkoako errekor berria dena.


Maratoia moduko proba gogor baten badago gozatzerik?

Korrika egitea izugarri gustatzen zait. 1979an saiatu nintzen Donostiako lehen maratoia egiten, baina perone fisura izan nuen eta lagatzea gomendatu zidaten. Dena dela, maratoirako gogo hori ez nuen galdu eta 1993an lortu nuenean lehen maratoia egitea, hor *kateatu* nintzen proba honetara. Poz hura ez da dena baten eros daitekeen gauza. Niretako filosofia moduko bat da korritzea; bizitzan moduan, ez dago gauzak lortzerik sakrifizio barik. Diziplina horrek balio izan dit bizitzarako.

Esaten dute maratoian bade-la momentu kritiko bat, 30. kilometroaren inguruan.

Hala da, bai. Derrepente indar barik bezala geratzen zara. Hidratoa, gasolina agortzen da eta akaboa. Gorputza koipea kontsumitzen hasten da eta birziklatzea moduko bat bezala egon behar da. Baina momentu kritiko hori gaindituz gero, makina berriro hasten da martxan. Lehen esandakoaren harira, bizitzan gertatzen den moduan, badira momentu zailak, eta horiek gainditzen ikasten da esperientziarekin. Norbere gorputza ondo ezagutzea garrantzitsua da.

Han eta hemen lasterketa askotan ibilitakoa zara. Gustukoenak, zeintzuk?



Aitor Eraña, 55 urterekin, beteranoen mailako Europako txapelketara joango da, Esloveniara.

"Urtean 3.000 kilometro inguru egin ditut; zapatilak beti aldean izaten ditut"

"Herri lasterketak bultzatu beharra dago, jendeari parte hartzeko animatzu"

ibilitako *Lutxi* Herzog gogora ekarri nahi nuke gaur.

Zenbat kilometro daramazu hanketan?

Urtean 3.000 kilometro inguru egin ditut. Beraz, 1993tik hona 45.000 bat edo egingo nituen. Astean sei egunetan joaten naiz korrika egitera. Zapatuan atsedan hartzen dut normalean. Lanagatik [Fagor Automationen dabil] mundu osoan ibiltzen naiz eta beti era-maten ditut aldean korrika egiteko zapatilak. Moskun, Parisen, Pekinen edo Hego Afrikan baldin banago ere, korrika egiteko tartetxo bat hartzen dut beti.

Eta garajetik pasatzeko orain-dik?

Ez pentsa. Belaunetan desgaste txiki bat daukat eta urtarrilean hiru injekzio eman zizkidaten haziera-plasma delakoa sartzeko. Asko hobetu dut. Zaintzea da sekreturik onena. Egune-ro gimnasia apur bat egiten dut, luzaketak eta pisu txiki batzuen laguntzaz ariketak eginez, hamar bat minutu.

Lasterketatan eta, baduzu maniareni bat?

Mania bakarra zera: leku denetara goiz joatea gustatzen zai-dala, oso goiz. Lasterketa 08:00etan bada esaterako, hantxe izango naiz 06:00etan. Tiritak jarri, baselina eman, zapatilak jantzi, beroketak egin, kafetxo bat hartu lagunekin, komunera joan beharbada joan... Karrera aurreko giroa bizitza, presa barik ibiltzea gustatzen zait. Jan zer? Aurreko astean pasta asko hartzen dut; bezperan ondo hidrata-tu eta pasta afaldu; eta lasterketa egunean 05:00etan berriro pasa-ta hartzeko ohitura daukat.

Bestela jan, denetik egiten duzu?

Bai, bizimodu normala egiten dut. Korrika egitea zaletasuna da niretzat. Azken baten, lagundu egiten dit laneko gauzak ahazten edo ondo lo egiten. Ez da gutxi. Eta jateko orduan ez naiz obse-siboki zaintzen dien horietakoa. Denetik jaten dut. Ardoarekin jatea atsegin dut eta nire kasuan behin behin *dopping* onena horixe, errioxar ardoa.

Asko daude: Behobia-Donostia izan da niretako lasterketa berezietako bat [15 aldiz egin du, guztietan 1:20tik beherako marka eginez], baina gaur egun gehiegi masifikatuta dago agian, eta baditu gauzak hobetzeko, irteera tartean... Gasteizeko maratoi erdia ere atsegin dut eta Idiazabal, urtarriko hirugarren astean egiten duten 10 kilometroko lasterketa ere oso ondo dago; jende askok hartzen du parte, ikusle mordoa egoten dira, giro ederra egoten da han.

Bergaran, San Antoneko krosa eta Soraluze-Bergara herri las-

"1993an lortu nuenean lehen maratoia egitea, hor *kateatu* nintzen proba honetara. Poz hura ez dago erosterik"

"Maratoian badira momentu zailak, eta horiek gainditzen ikasten da"

terketan giro bikaina egoten da. Herri lasterketak bultzatu beharra dago, antolatzaleei lagunduz eta jendeari parte hartzeko animatzu.


Bergaran korrikalari talde polita duzue...

Bai, elkarrekin ateratzen gara korrika egitera eta politena gure artean dagoen giroa da. Bata besteari galdezen, horrela ikasi dugu. Pike sanoa eta *katxondea* dira nagusi taldean. Nesak animatzea falta... Hamabost lagun inguruko taldea ibiltzen gara. Hil berri den eta urtetan gurekin



> JAIAK

Elgetan eta Aramaion jai nagusiak ospatu dituzte > 24



> ELKARRIZKETA

Xabi Mugartza oñatiarra, Ulma talde presidentea > 27



> TELEBISTA

Eneko Olazabal Hondarribiako kazetariari elkarrizketa > 29



SOKADANTZA Meza ostean hasi zen sokadantza Bergarako San Martzial auzoan eta jende asko egon zen ikusten, eta txalo egiten.

OIHANA ELORTZA

Goizeko lanbroak ez zuen eragotzi San Martzial jaia behar bezala ospatzea

BERGARA Aurten ere herriko koadrilez bete da Bergarako San Martzial

ANTZUOLA 80 lagunetik gora elkartu ziren zapatuko auzo afarian San Martzialgo ermitan

OIHANA ELORTZA > BERGARA Mozkorren zaindaria ei da San Martzial eta sinisdun edo jarraitzaile asko izango ditu, ziurrenik han eta hemen, baina ez Bergaran eta Antzuolan bestekoak. Bergara askorendako urteko egunik

politena izaten da eta antzuolarrek ere ez daude egun hori egutegitik kentzearen alde.

Aurten ere herriko koadrilez bete da Bergarako San Martzial. Udalatzako kideek idien atzetik egin zuten igoera, oinez, beste herritar batzuekin batera. Meza ordurako iritsi ziren, baina Juan Kruz Mendizabal apaizak lagun asko zituen agurtzeko eta berandu jantzi zuen sotana. Eguraldi tristea zegoen, lanbro apur bat ere bai. Lurra bustia eta labaina zegoen ondorioz, eta oso erraza zen labaintza. Sokadantzan parte hartu zutenek jausteko beldurra ere izango zuten, agian, baina ederki egin zuten; mutil bat lurrera eroi zen arren eta zinegotzi bat larri ibili. Lasai, kantina ondoan kantuak egin zutenak ibili ziren, eta kantinakoak edariak atera eta aterra. Aurten edalontzi berrerabilgarietan atera dituzte edariak eta

lurra ez zegoen beste urtetan bezain zikina, ezta antzik ere. Gaur goizean ere nabarituko da hori, seguru.

Bazkal ordurako ez zen lanbrorik eta jendeak gustura bazkaldu zuten. Amaia Alberdiren koadri-

lak, esaterako, Azpeitxi jatetxetik eraman zuen bazkaria: paella eta kroketak. Arratsaldean erromeria egon zen ermitaurrean, eta jendeak dantza egin zuen. Umeek, egun guztia pasa zuten uretako pisoolekin, aspertu barik.



Aurten ere ermita barruan egin dituzte jaietako otorduak Antzuolan.

100 LAGUNENDAKO AFARIA

Antzuolako San Martzial auzoan, berriz, zapatuan eta domekan ospatu dituzte jaiak. "Zapatuan, adibidez, 100 lagunendako bera-katz-zopa eta sahieskia prestatu genuen. 80 lagunetik gora elkartu ginen ermita barruan afaltzeako eta primeran pasa genuen", dio Jesus Odriozolak, San Martzial auzoko "mayordomo" k. Auzoko batzordeak antolatzen ditu jaiak eta urteko kontuak eramateko txandakatu egiten dira baserriak. "Mayordomo" a deitzen diote horri eta aurten Biskalatza baserriko Jesus Odriozola oñatiarra tokatu zaio. "Hemen dena egiten dugu auzolanean, baita zaborra jaso ere", gaineratu du. Jai hauetan ohitura dute mozkorrik haundieta harrapatzenten duenari aitzur bat oparitzeko. Aspaldiko ohitura ei da hori, eta azken urteetan berreskuratu egin dute.

J. A.



Jaietako herri egunean elgetar asko eta asko baserritarrez jantzi ziren.

JOSETXO ARANTZABAL



Atzo idi proben erakustaldia egin zuten Ferixa Nagusian.

ELGETA > FERIXA NAGUSIKO JAIAK

Elgetarrak baserritarrez jantzi ziren jaietako herri egunerako

Herri bazkariak arrakasta handia izan zuen. Udalak 500 pertsonendako gertatu zuen paella erraldoia eta dena jan zen

ARRITXU BARRUSO > ELGETA

Ferixa Nagusiko jaiak jendetxuak izan dira aurten eta herritarren parte-hartza handia izan da. Egubakoitzean mozorrotuta hasi zituzten jaiak elgetarrek. Urtero moduan mozorro jaitsiera egin zuten Salbador kaletik herriko plazara. Herri afarian ere jende ugari elkartu zen.

Zapatuan asto lasterketa egin zuten, baina, euria zela-eta ibilbidea aldatu behar izan zuten. Mikel Beretxinaga izan zen irabazlea. Iaz ere berak lortu zuen lehenengo postua. Lapurdi baserririko astoak

irabazi du aurtengo lasterketa. Ezaguna baita Lapurdi baserririko eta Sesto baserririko astoaren arteko pikea.

Eguerdian herri bazkaria izan zuten. Udalak 500 laguentzako paella erraldoia prestatu zuen eta guztia jan zen. Saiheskia ere 180 pertsonendako egin zuten eta ez zen saiheski bakarra geratu jan gabe. Zapatuan herri eguna dute Elgetan, eta egun hori indartzea zen Udalaren helburua. Esan daiteke lortu zutela helburu hori. Jendeak ongi erantzun zion baserritarrez janzteko eskariari eta zapatukoa antolatutako ekitaldien jende ugari elkartu zen.

Herriko elkartek egitarauan parte hartza zen Udalaren beste erronketako bat. Hori horrela, Goibeko euskara elkartek banatu zuen herri bazkariko paella eta erretiratuek, berriz, kafea banatu zuten.

Ferixa Nagusia ere ondo joan zen, loreak, barazkiak, txakolina edo eztia saltzen zuten postu dezena aurten ere. Baino nobedadea, aurten, idi probak izan dira. Elge-

tako azoka ezaguna da idia egoten direlako bertan. Hori horrela, aurten idi proba eta guzti izan dituzte Ferixa Nagusian. Jendeak gustura ikusi zuen proba.



Paella erraldoia egin zuten 500 lagunendako.

JOSETXO ARANTZABAL



Asto lasterketako irabazole Mikel Beretxinaga argazki



Nekazaritza eta artisautza postu ugari egin ziren au

JAIETAKO MOMENTU BATZUK

Galiarrak eta erromatarra egin ziren nagusi Elgetan

Egubakoitz iluntzean mozorro jaitsiera egin zuten Salbador kaletik herriko plazarein. Galiarraren abenturak Elgetan. Horixe izan zen mozorro gauerako aurten aukeratutako gaia. Kalejira egin ostean afari herrikoian egin zuten eta bertan galiarrak eta erromatarra egin ziren nagusi.

Koxa Bikondok buruz behera jardun zuen aizkoran

Herri kirol bitxiak izan dituzte aurten Elgetan. Koxa Bikondok ikusmin handia eragin zuen. Aizkorarekin enborrak mozten jardun zuen, baina, ez ohiko moduan: eskiatzeko bota batzuekin lortuta eta buruz behera. Motozurrekin ere figura benetan bitxiak egin zituen Bikondok.

Lau euroren truke bapo bazkaldu zuten elgetarrek zapatuan

Herri bazkaria izan zuten Elgetan zapatuan; Paella erraldoia egin zuten eta saiheskia ere jan zuten. Ondo eta merke bazkaldu zuten. Lau euro ordaindu behar izan zuten paella eder hori jateko-eta. Mendoa eta Bizkai trikitilariek izan ziren bazkalondoa girotzen arduradunak.

Idi probak izan dituzte aurten Ferixa Nagusian

Aurtengo Ferixa Nagusian izan da nobedaderik. Ganadu erakusketa eta, makinaria eta burdindegia azokaz gain, idi proben erakustaldia ere egin zuten atzo goizean. Eguraldi triste xamarra izan zuten Elgetan Ferixa Nagusiko egunean, baina, trikitilariek eta mariatxiak berehala konpondu zuten hori.



Galtzagorri txarangarekin poteoa egin zuten zapatu



JOSETXO ARANTZABAL



an. JOSETXO ARANTZABAL



an. Feria Nagusian. JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

ARAMAIO > SAN MARTIN JAIAK

Txupinazoarekin eta 'Ri-Rau' eginez hasi zituzten jaiak

Herriko plazan sekula baino jende gehiago zegoen txupinazoan. Herritarren parte-hartzea ona izaten ari da

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Egubakoitzean hasi zituzten Aramaion San Martin Jaiak; 20:00etan ziren hastekoak, baina, aramaioarrek apur bat itxaron behar izan zuten festa giroan sartzeko, etxafuegoei uste baino gehiago kosta zitzaien lehertzea-eta. Bainaz arazoa konponduta eta etxafuegoa bota ostein, festa eta parranda nagusitu zen Aramaion. Azken egunetan Aramaion agertutako Ri-Rau zioten kartelen misterioa ere berehala argitu zen. Sastiña ermitatik Abiadura Handiko Trenez margotutako enborra atera zuen herriko gazte talde batek, eta *ri-räu* ohikuatuz moztu zioten burua.

Herriko bertsolariekin eta trikitilariekin, gero, bertso poterea egin zuten eta festa giroa herriko kaleetan zehar zabaldu zuten horrela. Gauean UEK, Anestesia eta Feos pero Guapos taldeek kontzertua eskaini zuten txosna gunean.

Zapatuan ere goizean goiz hasi zuten festa Aramaion, Arrasateko erraldoiek eta herriko gazteek egindako buruhandiekin. Izan ere, herriko gaztetxoek azkeneko asteetan, Txatxilipurdi elkartekoek lagunduta, buruhandiak egiten jardun dute. Hankapaloen gainean eta mororrotua gustura ibili ziren kaleetan gora eta behera umetxoen atzetik.

Tortilla lehiaketa izan da aurtengo egitarauko nobedadeetako bat. Gaztetxoak izan ziren nagusi lehiaketan eta saria ere bi neskatala gaztek eroan zuten: Sara del Campo eta Alaitz Gabiñondok, hain justu. 150 euroko saria jaso zuten.

Jubilatuek mus eta briska txapelketa egin zuten. Musean Feliciano Uribarrenek eta Benito Altunak jaso zuten saria, eta briskan Maria Luisa Bengoak eta Basilisa Elortzak.

Arratsaldean eta eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, espuma jaia egin zuten eta horren ostein, urtero moduan, Txirritolinpiadak egin zituzten.

Iluntze aldera mexikar doinuak nagusitu ziren Aramaion. Real Azteca taldeak rantxerak abestu zituen eta aramaioarrak gauerako motorrak berotzen hasi ziren horrela.

Domekan ere izan zen nobedaderik. Orain dela urte batzuetako ohitura berreskuratuz herri kirolak egin zituzten-eta.



Sastiña ermitatik enbor batekin egindako Abiadura Handiko Trena atera zuten eta burua moztu zioten. ITSASO LOPEZ DE BERGARA

EGUN HANDIA GAUR

Aramaioar askorendako gaur izango da jaietako egun handia. Umeendako eta nagusiendako, guztiendako egongo da zer egin-

eta. Dena dela, duda barik, koadrilen arteko pikeak izango dira momentu politena. Kultur etxeko parkean zikindu, busti, jausi eta denetarik egin beharko dute koa-


drilek saria irabazteko. Iluntzean herri afaria egingo dute. Askok eta askok martitzen goizean bukatuko dituzte, seguruenik, San Martin jaiak.



Espuma jaian gustura ibili ziren gaztetxoek. J.A.



Inoiz baino jende gehiago txupinazoan. I.L..



Herri kirolak egin zituzten aspaldiko partez. J.A.



Zapatuan txirritolinpiadak egin zituzten. J.A.


UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

Bidali zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarrak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzezko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.

- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoak den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera Astelaren Goienkarian.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 6an jakingo dugu Astelaren Goienkarian.
- Parte-hartzaleek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoendarrek.
- Epai-mahaiaiak baloratuko ditu: argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa, bizitasuna..., besteak beste.
- Honez gain, GOIENAKO beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak Astelaren Goienkariako artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Babeslea:

kutxa

Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasate Bidaiaik
BIDATA-AGENTZIA ELKARTUA

ASTELEHENeko
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

Asteleheneetik egubakoitzera
09:00etik 18:00etara



Sariak

1. saria

Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarril: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 pulgadako LCD pantaila.

2

Arrasate Bidaiaik
BIDATA-AGENTZIA ELKARTUA




- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat Arrasate Bidaiaik-en eskutik.

3

• 3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

ASTE BUKAERA...

Xabier Mugartzarekin



Xabier Mugartzar, zapatuan, Ganbara eta Hondarribiko Nayade abesbatzek egindako emanaldia hasi aurretik.

JOSETXO ARANZABAL

"Egubakoitz eta domeketan Ganbara Abesbatzako kideekin entseatzentut"

Ulma taldeko presidenteak kontzertua eman zuen zapatuan Ganbara Abesbatzarekin

Abuztuko oporretan ez du bidaia lutzerik egingo: eguneko irteerak egingo ditu emaztearekin

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Xabier Mugartzar (Oñati, 1973) Ulma taldeko eta Ulma Construcción negozioko presidentea da. Hain zuen ere, 2007ko ekainean aukeratu zuten Ulma taldeko presidente.

Guzti horrek bulego ordu asko eskatzen dituela esan digu: "Bulegoan egoten naiz ordu asko eta bileretan beste asko. Presidente naizen aldetik, lan mordoa daukat; besteak beste, arlo exekutibotik kanporako lanak egiten ditut: hain zuen ere, taldearen gizarte eta lan arloak koordinatzen ditut eta urteko batzarrak antolatzen ditut. Bestalde, Ulma taldeko eta Construcción negozioko Gizarte eta Erretore kontseiluetan parte hartzen dut". Gainera, Ulma taldea MCC-ko kide denez beste hainbat bileratuan parte hartzen du.

Dena den, gustura dago due-la urtebete hartutako karguarekin. "Urtea bi zatitan banatuko nuke: lehen sei hilabeteak nahiko lasaiak izan ziren, baina azkeneko seietan oso lanpetua ibili naiz. Dena den, lan dibertigarria dela esango nuke", dio Mugartzak. Esan digu hitzordu guztiak

antolatzeko agenda ezinbestekoa duela: "Kargua hartu aurretik ez nuen agendarik erabiltzen, baina orain ezinbestekoa da nireta-ko. Idatzizko agenda eta agenda elektronikoa (Blackberry), eta Internet erabiltzen ditut asteko hitzorduak antolatzeko".

GANBARA ABESBATZAKO KIDE
Presidente kargura heldu aurretik, beste lan batzuk egin zituen

Ulma taldean. "Bost urte egon ninen AEB-ko filialean. Hain zuen 2000. urtetik 2005. urtera arte. Handik itzuli nintzenean kontrolatzale modura egon nintzen lanean, presidente kargua hartu arte". Jeneralean aste bukaeratan ez du lan konturik izaten, eta orduan aprobetxatzen du gehien gustatzen zaiona egiteko: emaztearekin egoteko eta Ganbara Abesbatzarekin entseatzeko.

"Duela gutxi sartu nintzen Ganbara Abesbatzan. Emaztea hasieratik dabil taldean eta hark anmatuta hasi nintzen entseguetara joaten. Nire esperientzia ikusita esan dezaket, abesten ikas daitekeela. Entseguak egiten ditugu egubakoitzetan 22:00etatik 00:00etara, eta domeketan, bi astean behin, 15:30etik 19:30era. Entseguetan batera, kontzertuak ere ematen ditugu: azkena, zapatuan, Hondarribiko Nayade abesbatzarekin", diosku.

"Kirola egitea eta ikustea asko gustatzen zait, batez ere futbola eta saskibaloia"

Ulma taldeko presidente kargua hartu zuenean saskibaloi entrenatzalea izateari utzi zion Xabier Mugartzak. "Duela bi denboraldi kadete mailako taldea entrenatu nuen. Aloña Mendi saskibaloitik taldean urte asko eman ditut: lehenengo jokalari moduan, gero zuzendaritzat batzordeko kide moduan, eta azkenik entrenatzale lanak egiten". Kirola gura beste egiten ez duela esan digu, baina ikustea gustatzen zaio. "Eurokopako partidu gehienak ikusi ditut, eta NBA ligako partiduak asko gustatzen zaizkit. Azken hauetan Internet bidez jarraitzen ditut. Los Angeles Lakers eta Boston Celtics taldeek jokatutako finala ikustea zoragarria izan da; saskibaloian jokatzen nuenean, Larry Birdek eta Magic Johnsonen jokatu zituzten finalekin gogoratu naiz-eta. Bestalde, ez dut kirol asko egiten, baina ahal dudanean joaten naiz, batez ere aste bukaeratan, bestela kiloek gora egiten dute...".

ABUZTUAN, OPORRAK
Astegunetan egunkariak irakurtzeko denbora gutxi izaten due-nez, aste bukaeratan "hasieratik bukaerara" irakurtzen ditu. Esan digu baita ere, sukaldari lanetan erlaxatu egiten dela: "Ez naiz oso trebea, baina jeneralean nik egiten ditut sukaldari lanak".

Dagoeneko hasi da abuztuko oporretan pentsatzen. "Hilaren 24an hartuko ditut oporrak, abuzturen 18ra arte. Abuztuan Oñatin geratuko gara, eta eguneko irteerak egingo ditugu, urrun joan barik ikusteko gauza asko dago-eta. Ea, bada, eguraldiak laguntzen digun".

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-errian. Oso eguzkitsuua. 12 metro koadroko terrazarekin. Erdiantzia eta prezio onean. 671 66 01 69

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdiyaldean. Prezio negoziagaria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

Bergara. 50 metro koadroko etxebizitza salgai Zabalotegin. Sukalde-jangela, hiru logela, komuna, balkola eta sotoa. Erdi jantzia. Prezio onean. 635 72 67 11

Eskoriatza. Etxebizitza salgai

edo errentan. Bi logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Arropak eskegitzeakoa. Igogailuarekin. Oso eguzkitsuua. 20 metro koadroko trastelekuarekin. 663 38 36 93.

Gasteiz. 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrotan. Hiru logela eta bi komun. Gas berokuntza individuala. Hego-mendebaldera eta dena kopalde-berria. Igogailuarekin eta garaje plazaiez. 615 70 99 86 edo 605 72 14 38

Oñati. 105 metro koadroko duplexa salgai. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

Oñati. 90 metro koadroko etxe-

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebetan baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzten diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAITZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak

KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:

Eskaintzen da:

- Egur osoko lan jarduna.
- Aldi baterako kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Lantaldean lan egitea.
- Soldatu interesgarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidatzeko baimena edukitzea.

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lana ezagutzea.
- Debagoienean edo inguruau bizitza eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztailak 10a baino lehen ondorengo helbidera:
idazkaritza@goiena.com



ETXE AGENTZIAK



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsuua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsuua. Ondo. Berruita.
- Zubietza 80 m². Berruita. Ganbarekin.
- Elusu baserria. Berruita. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berruita.
- Ibarlari 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berruita. Eguzkitsuua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsuua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berruita.
- Zubietza 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkaruntzeta 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Artekale 62 m². Berruita.
- Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsuua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsuua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- San Lorentzon etxe berriak

Arrasate:

- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsuua.

Antzuola:

- Bustinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Oñati:

- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesari. 75 m². Eguzkitsuua. Erdi berriuta.



DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berruita eta aukera ona.
- Ibarlari, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsuua.
- Zubietza 65 m², ondo, horturekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerrea, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentze, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibarlari, 80 m² oso ondo eta eguzkitsuua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekuak, 132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekuak 89 m², ia berria.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsuua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berruita, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berruita. Oso ondo.
- Zubietza, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berruita. Oso eguzkitsuua.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterkan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- San Roke, 75 m², ia berria.

SORALUZE

• Baltegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsuua.
- Antigua 55 m², erdi berriuta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

ASESA
aretxabaleko sustapen elkartea s.a.

amara
grupo

Iralabarri plaza 10, beheia ARETXABALETAK

Tel.: 943 53 28 30

www.amaralekuak.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

ARETXABALETA

- Otarola. Duplexa 85 m². Oso egoera onean.
- Loramendi. 62 m². Guztiz berritzeko.
- Iralabarri plaza, 105 m². Garajeak bi plaza. Jantzia. Oso ondo.
- Lausita. 80 m². Jantzia. Oso eguzkitsuua. Bista oso onak.
- Araba Ibilbidea. 92 m². Ganbarekin. Taberna hartzeko aukerarekin. Berritzeko.
- Bi plazako garajea. Lausittan.

EKSOKIATZA

- Txalatxo txalatxo. Zonaldeko lasaia (Kuatruena).
- Zure neurriko txalata eraikitzeko lursailak. (Kuatruena)
- Sustapen berria: gela bakareko, biko eta hiruko etxebizitzak. 100.000 €-tik 200.000 €-raho. Apuntatu.
- Duplexa aukeratzeko. Kirolegoiko zonaldea. Oso eguzkitsuua eta bista oso onak.
- Garaje plaza eta ganbarak. (Gastanadui)
- Gastanadui 73 m², 48 m²-ko terrazarekin. Oso bista onak. Estreinatzeko.
- San Pedro 80 m². Garajearekin. Jantzia. Oso egoera onean.
- San Pedro, 74 m². Berruita. Sukalde hornitua. Estreinatzeko.
- Aranburuzabala. Duplexa 104 m². Oso eguzkitsuua. Estreinatzeko.

ARRASATE

- Erdiko kale. Estreinatzeko etxebizitzak. Apunta zaitez.

LEINTZ GATZAGA

- 172 m²-ko etxebizitzak eta 219 m²-ko orubea.

DULANTZI

- AUKERA: 2.000 m²-ko lursailan, 840 m²-ko pabiloia.

ERROXA-CIRUEÑA

- Golf egoitzaldea. 82 m². Garajearekin. Estreinatzeko

ZURE ETXEBIZITZAREN SALMENTA KUDEATZEN DUGU.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Apple teknologia eta sagua. Beste ekipo bat eros dudalako Apple Keyboard eta harirk gabeo Mighty Mouse arratoia saltzen ditut. Egoera onean daude, ia erabil gabeak eta jatorrizko enbalatzeekin. 100 euro. 667 93 71 56

Autorako bozgorailua salgai. 50 euro. 617 13 17 51

Basalurra salgai Osintxu, Urkuju, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72

Bizkleta salgai. Errepideko. Giant etxeko. 48 neurriko. Hiru plater. 275 euro. Telefonoa: 658 75 84 58

Brain training berria salgai. Erabil barik dago. 617 13 17 51

Bruce Springsteen kontzerturako bi sarrera salgai. 60776 08 37

Izozkailua salgai. Bosch marka. 60 euro. 639 02 07 56 edo 943 76 58 88

JVC MP3 irrata salgai, auto-rendak. Egoera oso onean, oso gutxi erabilita. Prezioa ados teko. 635 25 54 44

Kanpinerako karro-denda salgai. Alpen Kreuzer. Inertzia duden balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokiak 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajearen gordeta. 1.000 euro. 615 72 47 43

Mahai salgai. 120x80 cm. Luzgarria: 200x80 cm. Berria. Dotorrea. 120 euro. Josu. Telefonoa: 619 18 77 00

Ordenagailua. Bigarren eskuko ordenagailua daukat salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13

Ordenagailua. Mahai gaineko ordenagailua salgai: Intel Pentium 4, 3GHz prozessoragailua, 120 Gb-ko disko gorriga, 512 MB RAM, TFT 17"-ko monitorea, Windows XP. la berria. Prezioa: 600 euro, negoziagaria. 61778 71 65

Telebista. Phillips HD Ready 37"-ko telebista salgai. LTDrekin. 1.300 euro. 650 80 80 39

astea GOITBn

Astelehena, 7




> Lapatx konpostaje planta erreportajeak
21:47

Konpostajeak izango da gaurko erreportajeak gaia. Hala, Azpeitiko Lapatx konpostaje plantako lan egiteko erakutsiko dituzte.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportaje-Ttipi TTapa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean
15:45 Gaurkoak.
15:47 Wazemak.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazkiak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Hitz bitan.
18:15 Teknopolis.
18:45 Berriak.
19:15 Animalia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunako.
20:45 Berriak.
21:15 Hamailla.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportaje.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Hamailla.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 8



> 'Berbaire' gaurkotasuneko gaiekin dator
21:47

Martitzenero bezala, gaurkotasuneko gaiekin dator-kigu asteotan ere Berbaire saioa, Julen Iriondoren eta kolaboratzaleen eskutik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Muka muka.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportaje.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Animalia.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Hitz bitan.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Jaiak:Elgeta eta Aramai.
22:15 Euskaldunok hizketan.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 9



> Elgetako eta Aramaiko jaiak Goiena Telebistan
21:47

Herriko jaietako jarraitzen du asteotan ere Goiena Telebistan. Eguaztenean Elgetako eta Aramaiko jaiak ekarriko dituzte pantailara.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Munduko futbol txapelketa.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Berriare.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Hitz bitan.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Jaiak:Elgeta eta Aramai.
22:15 Euskaldunok hizketan.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 10



> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan
22:15

Musika zaleok, egunero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskaintza zabala izango duzue.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Muka muka.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Euskal artzainak.
14:15 Iaiak:elgeta eta Aramai.
14:45 Berriak.
15:15 Berriare.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Euskaldunok hizketan.
16:15 Wazemak.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Animalia.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Euskal artzainak.
20:45 Berriak.
21:15 Hitz bitan.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Jaiak:Elgeta eta Aramai.
22:15 Ur eta lur.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Jazzmina.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 11



> Egunero bezala, albistegiak Goiena Telebistan
14:45

Egunero bezala, albistegien tartea izango duzue egubakoitzean Goiena Telebistan. Larraitz Zeberioren eskutik, gurean gertatutakoak jasoko dituzue.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Egoalde kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoak gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri saioan, eta sexologia kontuak, bestek beste.

arrasate irratia

FM 107.7

> Aquariumerako sarrerak zozketatuko dira Arrasate Irratian
10:30

Donostiako Aquariuma bisitatzera joateko sarrerak zozketatuko dituzte asteon Arrasate Irratian. Horrekin batera, 3.60 aretoan izaten diren kontzertuetara joateko sarreran ere zozketatuko dituzte.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoak gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri saioan, eta sexologia kontuak, bestek beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitza

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriberrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoan
Zozketak
Zorion agurrik (parte hartzeko):
943 25 05 05
(irratia@goiena.com)

11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
albistegi laburra.

gertutik



Eneko Olazabal
Kazetaria

"Zirk ederra da Basetxe; barre ugari egin dugu grabaketetan"

MIREN ARREGI > BERGARA
Hondarribin jaio eta bizi da Eneko Olazabal. Iku-entzunezko Komunikazioan lizenziatua, denetariko lanak egin ditu Komunikabideetan; Bilbo Hiria irratian jardun zuen eta baita ETBko *Bertatik Bertara* saioan ere. Prentsa idatzia ere landu izan du eta zinemagintzan ere hainbat lan egin ditu. *Basetxe*a saioko azken edizioan erredaktore lanetan ibili da.

Zein izan da zure lana *Basetxe-a*?
Grabaketetan egotea, grabazioak bideratzea eta zer grabatu behar den esatea. Nire lana lehiakideak zirkatzea eta euren betebeharrak gogoratzeara izan da, batez ere. Telebista manipulazioa da eta hori izan da nire lana, manipulatzea.

Lana egunero aldatzen da, beraz.
Inprobisazio etengabea da. Etxetik prestatuta eroaten nuenak ez zuen ezterako balio. Esperientzia polita izan da eta era berean gogorra ere bai. Berriz ere lan horri ekiteko asko pentsatu beharko nuke. Hala eta guztiz ere, primeran pasatu genuen eta barre ugari egin genituen hango "impresentable" guztiek. Zirk ederra da *Basetxe*a.

Realityak ikusteko joera duzu?

Ez, ez zaizkit halako saioak gustatzen. Hala ere, nahiago dut hori, albistegietan gezurak esaten ibili baino. *Basetxe*a egiten gustura aritu naiz baina ikusteko ez zaizkit saio horiek gustatzen. Irratian ere gertatzen zait antzerako zerbait, izan ere irratia egitea bai, baina entzutea ez zait batere gustatzen.

Laburmetraiak ere produzitu dituzu eta hori gustuko duzu gainera...

Zinea asko gustatzen zait. Hemen go ikasketak kazetari lanetara bideratuta daude eta ez dut gustuko. Gainera, lan baldintzak ere oso eskasak dira alor honetan; hala ere, ez naiz damu. Orain hezkuntzara bideratu gura dut nire bizitza, nire buruak bideo txarrak editatzeten ibiltzea baino gehiago eskertuko dit.

Zure lanak aurkeztu izan dituzu?

Bai, baina hemen egiten diren lehiaketetan sentsazioa daukat itxura baloratzen dela eta ez edukia. Gure lanak aurrekontu txikiarekin egindakoak dira eta horiek ez dute lekurik.

asteo hitzorduak

Antzerkia



BERGARA

> Helduendako ipuin kontaketa egingo du Joxemari Carrerek

Joxemari Carrere ipuin kontalari pasaiarrak *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* delako helduendako ipuin emanaldia egingo du. Hiesa da ardatza. Eguenean, hilak 10, izango da hori, Aroztegi aretoan, 19:00etan

Hitzaldia



ARRASATE

> Bidaiatzeko zenbait gomendio emango ditu Mertxe Bilbaok

Gazte Bulego eta Sexologia Zerbitzuaren eskutik, bidaiatzeko aholkuak emango ditu Mertxe Bilbao bidaiaiak egunean, Biteri plazan, 19:00etan. Aseguruatz, txertoetaz, bete beharreko paperetaz... egingo du berba.

Erakusketa



ARETXABAleta

> Kantauri itsasoko fauna eta flora-ren gaineko erakusketa dago

Txomin Rivera urpekariaren argazki erakusketa, *Kantauroko koloreak* delakoa, Arkupe kultura etxearen dago, uztail osoan barrena. Hauxe da bisita ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

kuxkuxeroa



Arritxu Barruso

Gutxi batzutan,
eta gehiegi
bestetan

Lean makala izan dugu aste bukaera honetan GOIE-NAKO kazetariok. Festa han eta festa hemen, kontzertua han eta pilotak partidua, tortilla lehiaketa hemen eta asto lasterketa bestean. Nora joan erabaki ezinda eta guztira iritsi nahi.

Asteberri honetan ezin esan bailaran ekintza kulturalik falta denik edo aste bukaerak aspergarriak izaten direnik. Aramaion barikuaz geroztik, festa giroan murgilduta dabilta. Txoritxo batek esan dit ezustekoren bat izan zute-la jaiei hasiera emango zien

**Festa nahi zuenak
festa izan du aste
berri honetan. Non
aukeratu bazegoen
behintzat oraingoan**

etxafuegoarekin, eta aramaioarrek apur bat itxaron behar izan zuten jaiak hasteko. Egia esan, familia onenetan ere gerzen dira horrelakoak. Zer lirateke, gainera, jaiak guztia bere orduan eta uste bezala irtetzen bada. Xarma guztia galduko lukete ezta? Kultura zinegotzia, agian, ez da ados egongo esandako azken honekin. Baino, bai, horrelaxe da.

Elgetan, berriz, Ferixa Nagusiko jaiak. Kontatudidate, gainera, Asterix, Obelix eta erromatar mordoa izan dituztela gonbidatu gisa jaietan. Baino bada hori baino gauza bitxiagorik, aizkoran buruz behera jardun zuen Koxe Bikondoren ikuskizuna. Ikusgarria benetan. Nire osabak esango lukeen moduan "hamaika ikusteko jaio ginuztan".

**((112))
SOS DEIAK**

asteburuko albuma



Puzkarra Records rock jaialdia Oñatin. Puzkarra Records rock jaialdia egin zuten zapatu gauean Oñatin. Zazpi taldek jo zuten. Kontzertua Dune Buggy taldeak hasi zuen eta Doubling Boys taldeak bukatu. Tartean jo zuten taldeak: Afoña, Golpe de Estado, Never Surrender, Sospechosos eta Nealtha Fola. Antolatzai-le taldeko Xabier Elortzak esan bezala jende dezente joan zen kontzertura eta oso pozik daude, "hurrengoan ere beste kontzertu bat antolatzeko gertu".



Esther Astarloaren lanak Aroztegin. Bergarako Aroztegi aretoan Esther Astarloa artistaren lanen erakusketa zabaldu dute egubakoitzean. Zeramika teknikarekin egindako eskulturak daude ikusgai. Atal batek, *Carpe Diem* du izena. Margoak ere badaude.



Jazzaldia Bergaran. Uztaldeko jazzaldia hasi da Bergaran. Egubakoitzean Phon Cubbin Criminals taldeak eman zuen kontzertua. Aurten ere Espainian izango dira kontzertuak.




Txaparrada musikala Bergarako gaztetxeen. Txapa Irratiak antolatuta, Txaparrada Musikala egin dute Bergarako gaztetxeen. Herriko 27 talde edo bakarlarik hartu dute parte egubakoitzean hasitako musika maratoian. Txapa Irratiak soinu-mahaian grabatu ditu kontzertu guztiek eta asmoa da CD bat ateratzea abenduan. CD horretan herriko 35 talde egongo dira guztira, Txaparradakoez gain beste kontzertu batzuk ere grabatuko dituztelako.



Arrasateko errozioa. Arrasateko Al-Andalus elkartea antolatuta errozioa egin dute aurten ere. Domeka goizean egin dute, Eroski inguru belardian, azken urteetan bezala.



Oñati eta Hondarribiko abesbatzak. Oñatiko Ganbara eta Hondarribiko Nayade abesbatzek kontzertua eman zuten elkarrekin zapatu iluntzean Santa Ana antzokian. Oñatiarrak Torreviejara doaz hile honetan eta kontzertu horren jendeaurreko entsegua izan zen zapatuko.



Markeliñe. Markeliñe konpainiak Terapia lana antzettu du zapatuaren Arrasateko Monterron parkean. Bizi osorako aukeratu dugun bizilagunari buruzko hausnarketa egin zuen Markeliñek. Antzezlan hau, Udalak udako antolatu duen egitarau berezian sartzen da.



Umeendako antzerkia eta zirkua. Zirka Zirkus taldeak *Bazen behin zirkoa* izeneko emanaldia egindu Aretxabaletako Arkupe kultura etxearen inaugurazioan. 3-8 urte arteko umeendako ikuskizun parte-hartzailea zen eta umeek ondo erantzun zuten.

Zorion Agurrak



ARRASATE
Martin Rozas
Lizarralde
Uztailaren 1ean.
Zorionak, Martin!
Martxel, Bingen,
Miren eta
Joxemielan partetik.
Patxo mila eta
belarritik tira pil!



ARRASATE
Leire Laskurain
Uztailaren 1ean.
Zorionak etxekoan,
Nani eta Aitorren
partetik.



ARRASATE
Oihan Loiti
Uztailaren 2an.
Zorionak, txapelduna.
5 urte ez dira
egunera betetzen!
Milaka patxo guz-
tition partez, batez
ere Iraia, Imanol
eta Elene.



ARRASATE
Ikerne Ezpeleta
Ikernek, uztailaren
2an eta Zuriñek
ostien, uztailaren
3an. Zorionak lagu-
nen izenien. Aupa
"Bratz".



ELGETA
Naiara Aranburu
Uztailaren 3an,
6 urte! Zorionak
Naiara Elgetako
familia guztian par-
tez eta ondo pasa!



ARRASATE
Oier Elortondo
Uztailaren 3an,
3 urtetxo gure
mutikuak: zorionak
eta patxo potolo
bat.



ARRASATE
Intza Gordobil
Kortabarria
Uztailaren 3an.
Zorionak txikitxo!!
Patxo handi-handi
bat Alatz, aita eta
amatxon parte!



BERGARA
Mikel Unamuno
Andueza
Ekainaren 4an,
urtebetetza.
Zorionak 4an,
patxo handi bat
etxekoan partetik!




ONATI
Mikel eta Aitor Dorado
Uztailak 4an 25 urte. Zorionak bixoi! Laztan eta besarkada bana, lagunen partetik!! Ondo pasau eguna!!



ARRASATE
Sara Yan Azkarate
Ramirez
Uztailaren 5ean, 3
urte. Patxo handi
bat amatxo eta
aitatxoren partez.




BERGARA
Ibai Arabaolaza
Uztailaren 5ean, 4
urte. Zorionak aita-
txo, amatxo eta
Aratzen partetik.



ARAMAIO
Miren Aretxaga
Uztailaren 6an.
Zorionak eta patxo
handi bat
zure hamargaren
urtebetetzean!
Etxekoan partez
ondo pasa egune!




DEBAGOIENA
Valeria Azurmendi eta Eider Jauregi
Valeriak uztailaren 7an 5 urte eta Eiderrek uztailaren
8an 7 urte. Zorionak, eta patxo haundi bat izeba Maite,
osaba Paco eta birramona Maritxuren partetik!



ARRASATE
Eider Errasti Diez
Uztailaren 7an,
urtebetetza.
Zorionak, printzesita
zure bigarren
urtebetetzean! Egun
zoriontsua pasa,
familia guztian par-
tez. Mua!



ONATI
Aimar Fermin
Blazquez Elortza
Uztailaren 7an,
Zorionak Aimar
zure bigarren urte-
betetzean. Muxu
haundi bat
Blazqueztarren par-
tetik. Gora gure
Ferminiko!!!!



ARRASATE
Manex Muñez
Uztailaren 10ean,
urtebetete. Zorionak
eta patxo haundi
bat familiakoen
partetik.




ONATI
Iratzi Igartua
Arabaolaza
Uztailaren 12,
7 urte. Zorionak,
etxekoan partetik.



ONATI
Lierni Axpe
Uztailaren 12,
27 urte! Zorionak
lili lagun danon
partez eta patxo
handi bat!



ARRASATE
Iraia Loiti Iraola
Uztailaren 12,
Zorionak sorgintxo!
Bi urtetxo betetzen
dituzu.
Patxo potolo bat
Oihan, Imanol eta
Elenen partez.



ONATI
Haritz Arregi
Uztailaren 13an,
urtebetetzea.
Zorionak eta patxo
haundi haundi bat
etxeko danan par-
tez. Oso ondo
pasau zure egune.



BERGARA
Haritz Gomez de
Balujera Oregi
Uztailaren 8an,
5 urte. Zorionak
familiakoen par-
tetik, bereziki Hodei.



ARRASATE
Jone Arrieta
Marijo Muñez
Uztailaren 7an
urtebetetza.
Zorionak Marijo!
Ondo pasau zure
egunean!
Familiakoen
partetik.



Unax Urkia Madinabeitia
Aretxabaleta > 3'700 kilo. Uztailaren 4an. Eva (Aretxabaleta)
ta Josu (Aretxabaleta). Argazkian: Tia Hildarekin.



June Gonzalez Benito
Abadiño > 3,440 kilo. Uztailaren 2an. Gurasoak: Irantzun (Sora-
luze) eta Juan Carlos (Abadiño). Argazkian: June, sehaskan.



Nora Cantera Herrasti
Aretxabaleta > 3,430 kilo. Ekainaren 27an. Gurasoak: Eneritz (Are-
txabaleta) Oscar (Eskoriatza). Argazkian, Nora jaioberria bizi-bizi.

BABESLEA



IKUSI
MAKUSI



Jose Antonio Bastegieta 'Marko' > Kortezubiko alkate ohia

"Reaganek hegazkinez bidali zigun bakailaoa"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Kortezubiko (Bizkaia) alkatea izan da **Marko** aurreko legealdira arte; 28 urte. Bere herria ezagutzen emateko lehiaketa ugari egin ditu, eta lortu du bere helburua. Jate-txarekin eta burusoil umoretsuen elkartarekin buru-belarri dabil.

Bada Jose Antonio deitzen zaituenik?

Emazteak, lehen amak eta beste norbaitek; asko jota dozena erdi batek. Atzetik izenez deituz gero, ez nuke buelta emango.

Eta Marko nondik dator?

Altari Marko deitzen zioten, baserriak Markone izena daukalako.

Damutzen zara txirrindulari ez izanagatik?

Apur bat. Bi urte egin nituen Lekeitioko taldean, baina ez nuen sufritu gura eta alde batera utzi nuen. Bestela, txirrindularitza niretzat kirol politena da eta ahal dudan heinean jarraitzen dut.

Egia da gomendatu zizutela Madrilera ez joatea?

Bai. Espainiako eskuin muturra birritan saiatu da ni erailtzen Madrilen. Bietan soldadutzaren kontra egitera joan nintzen: baten, Defentsa ministeriora eta beste baten, Telecincoko mahain-guru batera. Bietan poliziak eskoltatu behar izan ninduen.

Noiz jarriko dute Aitasantu burusoila?

(Barre) Burusoil umoretsuen elkarteko bi kidek Juan Pablo II.arekin hitzordua lortu genuen. Ohorezko burusoil izendatu gura genuen, baina metro erdira kon-

turatu ginen ilea daukala. Barre-garri geratu ginen. Gerora, Dalai Lamarekin ere egon nintzen.

Zaila da AEBetan bakailao lehiaketa antolatzea?

Elcon (Nevada) bakailao lehiaketa antolatzeko eskatu zida-ten. Bakailaorik ez genuen eta Pete Cenarrusaren bitartez, Ronald Reaganek hegazkin mili-tar baten bakailaoa bidali zigun Washington DCtik.

Zer deritzozu Urdaibaien Gu-gendenheim bat eraikitzea?

Idea ona da. Urdaibai oso polita da, baina gaua gutxiegi egiten dira, industriarik ere ez dago eta hangoek ere jan egin behar dute.

Bilbotarrak gura duten lekuau jaio daitezke zuri esker?

Bilbotarrak eta beste edozein. Emakume bat etorri zitzaidan esanez, umea Crucesen jaio arren ez zuela Barakaldon erregistra-tu gura. Ezohiko osoko bilkura baten Espaniako Kongresura eskaera egitea proposatu nuen, eta legea aldatu egin zuten.



SALT SEROA Plaza-gizona da Marko. Musika jotzea bakarrik falta zaio. I. BARANDIARAN

ai, ene!



Kanping denda

Auto itxura duen kanping den-da honekin ez dago kanpinge-ra joan beharrik, kalean mun-tatu, eta listo. Baina horretako autoa aparkatzeko tokia bilatu behar eta horiez da erra-za izaten askotan, baina tira, aukera bat da.

<http://www.sarda.es>

BMA

E uskaraz BMA-k esanahirik duen ez dakit, "Begin mugimendu azkarra", MOR gazteraz eta REM ingeleraz.

Amets sakonenak izaten ditugun loaren fasea, loaldi paradojikoa alegia.

Nahiz eta ez dagoen loaldi sakonean murgil-du beharrik paradojikoak diren egoeren aurrean aurkitzeko, REM faseek egunero esnatu orduko hartuko baligute bezala.

Ingruan begiratu besterik ez batzuek etengabeko loaldian, edo loaldia-ren amets sakonenean bizi direla ikusteko, induzitua edo ez, egunerokotasuneko erreali-tatik aldendurik. Egune-

rokotasuneko errealtitatea estaltzeko beste albiste edo gertakari batzuez puzten bait digute egunerokotasuna. Espaniarrik konturatua al da astean zehar argindarra zein euriborra inoiz baino gehiago igo direla?

Informazioa duenak du boterearen giltza, eta zeharkako zein zuzeneko informazio interesa-tuaren erabilera markatzen dute gizarte-aren urrats, pausu edo hildoa, txontxongilo-aren hariak. Oraingoan ere futbola zuten hari.


REM fasean murgildu nahi zuenak Bilbon izan du aukera, Kobetamendin. Nik, nire REM fase par-tikularrean jarraituko dut, hurrengo aukeraren zain.



biharamuna

Oier Bolibar

eguraldia



MAXIMOA

+22

MINIMOA

+14

Hobera egingo du eguraldiak. Haizeak ipar mendebaldeik joko du eta temperaturak gora egingo du pixka bat.

www.euskalmet.net

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

